*Ayudas para la edición de obras de carácter literario en euskera y en castellano dirigidas a empresas editoriales. En la modalidad de euskera se han concedido ayudas para los Planes Editoriales de 19 editoriales en los que se incluyen 389 obras. Y en la modalidad de castellano se han subvencionado 13 Planes Editoriales incluyendo 358 obras. Por medio de esta línea de ayudas se ayuda a la continuidad del sector editorial vasco y se promociona la producción de literatura vasca de calidad.*

5. Sortutako antzerki ekoizpen berri kop. urtean.

*5. Num. anual de nuevas producciones teatrales generadas.*

Lau modalitateetan (konpainia sortu berrientzako laguntzak, produkzioetarako laguntzak, hitzartutako zirkuitua duten produkzioentzako laguntzak eta finkatutako konpainientzako laguntzak) banatutako 19 laguntzek 26 antzerki produkzio sortu dituzte guztira.

*Los 19 proyectos apoyados en las cuatro modalidades de ayudas (ayudas a compañías de nueva creación, ayudas a la producción, ayudas a la producción con circuito concertado y ayudas a compañías consolidadas) han generado un total de 26 producciones teatrales.*

6. Antzerki konpainien egoitza programa kop. urtean, antzoki publikoetan: 3.

*6. Num. anual de proyectos de residencia de compañías teatrales en teatros públicos: 3.*

2. Zabalkundea eta Kultura kontsumoa dinamizatzea.

*2. Dinamización de la difusión y consumo cultural.*

1. EAEn lagundutako liburu azoka kop. urtean.

*1. Num. anual de proyectos de ferias del libro apoyados en la CAE.*

2014. urtean, 18 liburu azoka lagundu dira diruz Euskal Autonomia Erkidegoan: hiru hiriburuetan eta beste udalerri batzuetan. Horretaz gain, Durangoko Euskal liburu eta disko azoka 49. Edizioa ere lagundu da.

*En el año 2014, se han desarrollado 18 ferias del libro de carácter local distribuidas en las tres capitales y otros municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Además se ha subvencionado la 49 edición de Euskal liburu eta disko azoka en Durango*

2. Kaleko ikuskizun eszenikoetako kontratu kop. urtean.

*2. Num. anual de contratos de espectáculos escénicos de calle apoyados.*

Programa honen bidez, kaleko arte eszenikoen kontratazio maila bultzatu nahi izan da 33 udalerritako programazioak lagunduz. Guztira 160 ikuskizun lagundu dira diruz.

*Por medio de este programa se quieren estimular las contrataciones en el área de las artes escénicas de calle apoyando las programaciones de un total de 33 municipios. En total se han realizado 160 espectáculos.*

3. Lagundutako dantza emanaldi kop. urtean.

*3. Num. anual de representaciones de danza apoyadas.*

Dantza sektore profesionalari dagokionez, Dantza garaikidearen Zirkuituaren hamargarren edizioa aipatu behar da. Horren bitartez, 60 emanaldi programatu ziren Autonomia Erkidegoko 20 herritako antzoki edo espazio desberdinetan. Bestalde, Dferia dantzan delako programa garatu zen Donostiako arte eszenikoen feriaren barnean (Dferia). Bertan euskal dantza konpainien 7 dantza emanaldi sustatu ziren. Azkenik, 'Dantzan Bilaka' programaren testuinguruan 3 dantza emanaldi antolatu ziren, pieza laburrekin.

*En cuanto al sector de la Danza profesional hay que destacar la celebración de la décima edición del Circuito de danza contemporánea, en el que se programaron 60 representaciones en diferentes teatros o espacios de 20 localidades de la Comunidad Autónoma. Por otra parte, en el marco de la Feria de artes escénicas de Donostia (Dferia) se presentaron 7 producciones de otras tantas Compañías de Danza. Finalmente, en el contexto del programa 'Dantzan Bilaka' se organizaron 3 presentaciones de piezas cortas de danza.*

4. Lagundutako musika kontzertu kop. urtean.

*4. Num. anual de conciertos de música apoyados*

2014ko Musika jarduera profesionalen 'Musika programazioaren modalitatetik abiatuta eta 'Euskadiko Soinuak' programaren testuinguruan, 'Zuzen-Zuzenean' musika zirkuituaren seigarren edizioa garatu da. Bertan, 49 kontzertu egin dira musika areto pribatuetan, eta horietatik 78 euskal taldek hartu dute parte.

*A partir de la modalidad de programación musical de la convocatoria de actividades musicales profesionales de 2014 y en el contexto del programa 'Euskadiko Soinuak', se ha desarrollado la sexta edición del circuito musical 'Zuzen-Zuzenean', con la organización de 49 conciertos en salas privadas de música en directo, en los que han participado 78 grupos vascos.*

5. Ikusizko arteen zabalkunderako lagundutako proiektu kop. Urtean: 23.

*5. Num. anual de proyectos de difusión de artes visuales apoyados: 23.*

Arte Plastiko eta ikusizkoen arloan diru-laguntzen deialdiaren bidez, hainbat jarduera bultzatzen jarraitu da sustapen-zabalkundearen arloan, batetik arte garaikideko gertakizunak antolatzea edota haietan parte hartzea lagunduz (erakusketak, egoiliar gisako proiektuak, batzarrak, lantegiak…), eta bestetik katalogoak eta argitalpenak editatzea bultzatuz.

*En el campo de las artes plásticas y visuales se ha continuado impulsando mediante la convocatoria de ayudas acciones de promoción y difusión de las artes visuales, apoyando la organización y/o participación de agentes del sector en eventos y manifestaciones de arte contemporáneos (exposiciones, residencias, encuentros talleres…) y la edición de catálogos y publicaciones.*

6. Lagundutako nazio eta nazioarteko jaialdi kop. Urtean: 65.

*6. Num. anual de festivales de carácter nacional e internacional apoyados: 65.*

3. Sailak bultzatutako sektoreetako programak.

*3. Programas sectoriales impulsados por el Departamento.*

1. EAEko sorkuntza gune eta esperientzien informaziorako eta koordinaziorako zerbitzua jaso duten kultura eragile kop. urtean.

*1. Num. anual de agentes culturales beneficiarios del Servicio de información y coordinación de centros y experiencias creativas de la CAE.*

Arlo honetan zabaldu dugun hausnarketa prozesuaren ondorioz ez da sorkuntza-gune eta esperientzien informaziorako eta koordinaziorako zerbitzua esleitu.

*Debido al proceso de reflexión abierto en esta área no se ha procedido a la adjudicación del servicio de información y coordinación de centros y experiencias creativas de la CAE.*

2. Euskal Antzoki SAREAko gomendatutako obren katalogoan sartutako ikuskizun kop. urtean: 80.

*2. Num. anual de espectáculos incluidos en el catálogo de obras recomendadas de la Red Vasca de Teatros SAREA: 80.*

3. Euskal Antzoki SAREAren Idazkaritza teknikoa jaso duten antzoki kop. urtean: 52.

*3. Num. anual de teatros usuarios del servicio de la Secretaría Técnica de la red Vasca de Teatros SAREA: 52.*

4. Euskal musikaren ekoizpena eta zabalkundea sustatzeko EUSKADIKO SOINUAK programaren bidez bultzatutako jarduera kop. urtean.

*4. Num. anual de acciones impulsadas a través del programa EUSKADIKO SOINUAK, de apoyo a la producción y difusión de la música vasca.*

'Euskadiko Soinuak' programaren bitartez, sektoreko elkarteekiko lankidetzan, Euskal herrian sorturiko eta ekoiztutako musika sustatzeko promozio, formakuntza eta sensibilizazio 34 jarduera garatu ziren, baita Musika egunaren inguruko aurkezpen eta kanpaina berezia ere.

*En el marco del programa 'Euskadiko Soinuak' y en colaboración con las asociaciones del sector se desarrollaron acciones diversas de apoyo a la música creada y producida en Euskal Herria. Con dicho objeto se realizaron 34 acciones de promoción, formación y sensibilización, así como una presentación y campaña especial en torno al Día de la música.*

5. Arte garaikidea bultzatzeko EREMUAK programaren testuinguruan sustatutako ekintza kop. urtean.

*5. Num. anual de acciones apoyadas en el contexto del Programa EREMUAK para la promoción del arte contemporáneo.*

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 2014. urtean arte garaikidea sustatu eta zabaltzeko Eremuak Programarekin jarraitu du. Programa hau Euskadiko testuinguru sortzailea gauzatzera, indartzera eta ikustaraztera zuzenduta dago; parte hartzeari dagokionean berriz, irekia dago praktika eta egile guztiei; batzorde tekniko bati dagokio ekitaldi

*En 2014 se ha continuado con el programa Eremuak, de promoción y difusión del arte contemporáneo. Es un programa orientado a producir, fortalecer y visualizar el contexto creativo en Euskadi. Está abierto a todo tipo de participación, prácticas y autorías artísticas, siendo una Comisión Técnica la encargada de definir cada*

bakoitza definitzea eta zehaztea. Azkenik, programa aurrera eramateko entitate edo zentro batek (Artium) bere baitan jaso du. 2014an lan hauek gauzatu dira:

- Deialdi jarraitua: 17 lan proposamen bultzatu dira.

- Berariazko deialdia sortzaileei zuzenduta, eremuak programaren erakusketa kolektiboan parte hartzeko.

- “First Thought Best” Erakusketa kolektiboa antolatu da Artiumen uztaila eta abuztuan. Bertan 16 artisten lana erakusgai egon da.

- Eremuak programaren edizio lerroa indartu egin da. Ateratako argitalpenak: “eremuak 1”; “First Thought Best”; “Ekoizpenaz, gaindosiaz, gehiegi ekoizten”.

6. Euskal eta euskarazko zinea sustatzeko ZINEUSKADI programaren barruan lagundutako proiektu kop. urtean.

ZINEUSKADI elkartetik, fikziozko eta animaziozko film luzeen eta sorkuntzazko dokumentalen promozioa eta publizitatea babesten jarraitu da. Horrela 2 film eta 4 dokumental lagundu dira.

Bestalde, udal zinema-aretoen sarea garatzeko eta babesteko, ZINEUSKADI elkartetik, zinema-aretoek Europar Erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiak eskuratzeko laguntzen deialdiarekin jarraitu da. Horrela 28 zine areto lagundu dira diruz.

4. EAEko Udaletako kultura programak bultzatzea.

1. Diru-laguntza izendun bidez kultura programak gauzatzeko lagundutako EAEko udal kop. urtean.

Kultura aldetik esanguratsuenak diren udaletako urteko kultura programetako jarduerarik estrategikoenak diruz lagundu dira: hiru hiriburuetakoak eta Getxo, Leioa eta Eibarkoa.

5. Kulturaren elkartegintza sektorea hobetzeko ELKARTE Plana.

1. Diru-laguntza izendun bidez lagundutako kultura sektoreetako elkarte kop. urtean.

Liburu eta literaturaren arloan, erreferentziazko 7 elkarte sektorialek jaso dituzte laguntza izendunak: Euskal Idazleen Elkartea (EIE), Euskal Editoreen Elkartea (EEE), Euskadiko Editoreen Gremioa, Liburu Ganbara, Euskadiko Ilustratzaileen Elkarte Profesionala (APIE), Euskadiko Idazleen Elkartea eta Euskadiko Liburudenden Elkarteen Federazioa.

Ikus-entzunezkoan, IBAIA, EPE / APV eta EIKEN.

*edición. El programa para su desarrollo cuenta con un centro/entidad de acogida (Artium). En 2014 se ha desarrollado las siguientes líneas de trabajo:*

*- Convocatoria continua: se han impulsado 17 nuevas propuestas de trabajo.*

*- Convocatoria específica para creadores/as con el objetivo de ser seleccionados para formar parte de la muestra colectiva de eremuak.*

*- Muestra colectiva “First Thought Best” organizada en el Artium los meses de julio y agosto en la que se mostró obra de 16 artistas.*

*- Se ha reforzado la línea editorial de eremuak. Publicaciones realizadas: “eremuak 1”; “First Thought Best”; “Sobre producción sobredosis sobreproduciendo”.*

*6. Num. anual de proyectos apoyados en el Programa ZINEUSKADI para la promoción y fomento del cine vasco y en euskera.*

*Desde la asociación ZINEUSKADI, se ha continuado apoyando la promoción y publicidad de largometrajes de ficción y animación y documentales de creación, en el que se han subvencionado 2 largometrajes y 4 documentales.*

*Además, desde la Asociación ZINEUSKADI, se ha continuado un año más con la convocatoria para el acceso de las salas de exhibición cinematográfica a copias de películas comunitarias e iberoamericanas. Apoyando este año a 28 salas de exhibición.*

*4. Apoyo a programas culturales de Ayuntamientos de la CAE.*

*1. Num. anual de ayuntamientos de la CAE apoyados para sus programas culturales mediante subvenciones nominativas.*

*Se han subvencionado las actividades más estratégicas de los programas culturales anuales de los ayuntamientos de mayor significación cultural: los de las tres capitales y los de Getxo, Leioa y Eibar.*

*5. Plan ELKARTE de apoyo a asociaciones sectoriales del ámbito de la cultura.*

*1. Num. anual de asociaciones sectoriales de la cultura apoyadas mediante subvenciones nominativas.*

*Se ha apoyado la actividad de 7 asociaciones sectoriales referenciales en el sector del libro y la literatura: Euskal Idazleen Elkartea (EIE), Euskal Editoreen Elkartea (EEE), Gremio de Editores de Euskadi, Cámara del Libro, Asociación Profesional de Ilustradores de Euskadi (APIE), Asociación de Escritores de Euskadi y Federación de Asociaciones de Librerías de Euskadi.*

*En el sector audiovisual, IBAIA , EPE / APV y EIKEN.*

Antzerkian, ESKENA (Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuak) eta EAB (Euskal Aktoreen Batasuna).

*En teatro, ESKENA (Empresas de Producción Escénica Asociadas de Euskadi) y EAB (Unión de actores vascos).*

Dantzan, EDB – Euskal Dantzarien Biltzarra, ADDE – Dantza profesionalen elkartea eta Dantzan.com.

*En la danza, EDB – Euskal Dantzarien Biltzarra, ADDE – Asociación de profesionales de la danza del País Vasco y Dantzan.com.*

Musikan, EHTE- Euskal Herriko Trikitixa elkartea, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea, Kultura Live – Zuzeneko Musika areto pribatuen elkartea, MUSIKAGILEAK- Euskal herriko konpositoreen elkartea, MIE Música industrien elkartea eta MAE – Euskadiko Musikarien Elkartea.

*En la música, EHTE- Euskal Herriko TrikitiXa elkartea, Confederación de Coros de Euskal Herria, Kultura Live –Asociación de salas privadas de música en directo, MUSIKAGILEAK- Asociación Cultural para el Fomento de la Composición Vasca, MIE Asociación de la industria musical vasca y MAE – Músicos asociados de Euskadi.*

Sormen Lantegietan, EUSKADIKO SORMEN ESPERIENTZIA SAREA (KARRASKAN) aktibitatea lagundu da.

*En Fábricas de Creación, se ha apoyado la actividad de RED DE EXPERIENCIAS CREATIVAS DE EUSKADI (KARRASKAN).*

6. Bestelako Kultura Elkarte eta Entitateak bultzatzea.

*6. Apoyo a otras asociaciones y entidades culturales.*

1. Diru-laguntza izendun bitartez lagundutako kultura elkarte eta entitate kop. urtean.

*1. Num. anual de asociaciones y entidades de la cultura apoyadas mediante subvenciones nominativas.*

Ikus-entzunezkoan, Filmoteka eta Zinemaldia.

*En el sector audiovisual, Filmoteca y Zinemaldia.*

Antzerkian, BIARGI, HARROBIA, ORTZAI eta Pabellon 6.

*En teatro, BIARGI, HARROBIA, ORTZAI y Pabellón 6.*

Dantzan, Dantzaz elkartea.

*Danza, Asociación Dantzaz.*

Ikusizko artean, Arabako Artium Fundazioa.

*En Artes Visuales, Fundación Artium de Álava.*

Musikan, Eresbil, Euskal Musikaren Artxiboa Fundazioa, EGO Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa, Donostiako Musika Hamabostaldia, ABAO Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, Bilboko Koral Elkartea, Gasteizko Jazz Jaialdia, Elai-alai elkartea eta Donostiako Orfeoia.

*Música, Fundación Eresbil, Archivo Vasco de la Música, Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria, EGO; Quincena Musical Donostiarra, Asociación Bilbaína de Amigos de la Ópera, Sociedad Coral de Bilbao, Festival de Jazz de Vitoria, Asociación Elai-Alai y Orfeón Donostiarra.*

Sormen lantegietan, HACERIA ARTEAK ZAWP Zorrotzaurre Art Work in Progress.

*En Fábricas de Creación, HACERIA ARTEAK ZAWP Zorrotzaurre Art Work in Progress.*

Euskal Kultur Erakundea (EKE).

*Institut Culturel Basqie (ICB).*

Zeharkakoak: Tolosako Ekimen eta Turismo Etxea, Puertas Abiertas La fundición, Euskalerriaren Lagunen Elkartea, Eusko Ikaskuntza urteko programa eta Auñamendi Euskal Entziklopedia, Donostia 2016 Europako Kulturaren Hiriburua Fundazioa eta Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea (Tabakalera).

*Transversales: Centro de Iniciativas de Tolosa, Asociación Puertas Abiertas-La Fundición, Sociedad Bascongada de Amigos del País, Asociación Sociedad de Estudios Vascos (programa anual y Auñamendi Eusko Entziklopedia), Fundación Donostia 2016, Capital Europea de la Cultura y Centro Internacional de Cultura Contemporánea (Tabakalera).*

Beste erakunde batzuk: Extremadurako Elkarteen Euskadiko Federazioa, Andaluziako Elkarteen Euskadiko Federazioa, Irmandade de Centros Galegos de Euskadi, Valentin Foronda institutua, Gasteizko arte eta ofizioen eskola, Irungo Luis Mariano Elkartea, Arabako Ilusionisten Elkartea, Fila 2 Kultura Elkartea, Apyma Telleri, Senidetzeen Aldeko Elkartea – NEXO, Camelamos Adiquerar Ijitoen Elkartea eta Landarbaso Abesbatza.

*Otras entidades: Federación de Asociaciones Extremeñas de Euskadi, Federación de Asociaciones Andaluzas de Euskadi, Irmandade de Centros Galegos de Euskadi, Valentin Foronda institutua, Gasteizko arte eta ofizioen eskola, Irungo Luis Mariano Elkartea, Asociación de Ilusionistas de Álava, Asociación Cultural Fila 2, Apyma Telleri, Asociación Pro Hermanamientos. Nexo, Asociación gitana Camelamos Adiquerar y Landarbaso Abesbatza.*

7. TABAKALERA kultura- eta arkitektura proiektua Donostian.

1. Urtean lagundutako azpiegitura kop.

Donostiako aintzinako Tabakaleraren eraikinaren bergaitze lanak, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunearen egoitza izan dadin.

*7. Proyecto cultural y arquitectónico TABAKALERA en San Sebastián.*

*1. Num. anual de infraestructuras apoyadas.*

*Rehabilitación del edificio de la antigua Tabacalera de San Sebastián para sede del Centro Internacional de Cultura Contemporánea.*

**5. NAZIOARTERATZEA**

1. Europar Batasunarekin (EB) koordinatutako proiektuak.

1. Urtean koordinatutako proiektu kop.

Europako Batzordearen Cultura 2007-2013 programa Europa Sortzailea izenekoan integratu da 2014-2020 aldirako.

Europa Creativa programaren barruan ondorengo lerroak txertatzen dira:

Europa Creativa Media: bi banaketa proiektu eta merkaturatzerako proiektu bat lagundu dira diruz.

Europa Creativa Cultura: nazioarteko lankidetzarako bost proiektu lagundu dira diruz.

Europa Cinemas: guztira lau zinema areto eta aretoen sare txiki bat lagundu dira diruz.

2. Etxepare Euskal Institutuarekin euskal kulturaren kanpoko zabalkunderako lankidetza.

1. Urtean egindako lankidetza ekintza kop.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak, Etxepare Euskal institutuaren laguntzarekin, 10 egitasmo antolatu ditu Euskadiko liburu, musika eta arte eszenikoen eskaintzaren aurkezpen kolektiboa eta iraunkorra gure mugetatik kanpo ahalbidetzeko.

3. Pirinioetako Lan Elkartea.

1. Pirinioetako Lan Elkartearen bidez lagundutako proiektu kop. urtean.

Pirinioetako Lan Elkartearen Kultura Batzordean lehendik hitzartutako Kulturpyr proiektua kooperazioan garatzen jarraitu da.

***5. INTERNACIONALIZACIÓN***

*1. Coordinación de proyectos con la Unión Europea (UE).*

*1. Num. anual de proyectos coordinados.*

*El Programa Cultura 2007-2013 de la Comisión Europea se ha integrado en Europa Creativa para el periodo 2014-2020.*

*Dentro del programa Europa Creativa se incluyen las siguientes líneas:*

*Europa Creativa Media: se han subvencionado 2 proyectos de distribución y uno de acceso a mercados.*

*Europa Creativa Cultura: se han subvencionado 5 proyectos de cooperación internacional.*

*Europa Cinemas: se han subvencionado un total de 4 salas de cine y una mini red de salas.*

*2. Colaboración con el Instituto Vasco Etxepare en acciones de difusión exterior de la cultura vasca.*

*1. Num. anual de acciones de colaboración.*

*La Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, en colaboración con el instituto Vasco Etxepare, ha organizado 10 programas de colaboración con Ferias que posibiliten la muestra colectiva y continuada de la realidad literaria, musical y escénica vasca en el exterior.*

*3. Comunidad de trabajo de los Pirineos.*

*1. Num. anual de proyectos apoyados a través de la Comunidad de trabajo de los Pirineos.*

*Se ha continuado desarrollando en cooperación el proyecto Kulturpyr, anteriormente acordado en la Comisión de Cultura de la Comunidad de Trabajo de los Pirineos.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4514 ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOA | *4514 PATRIMONIO HISTÓRICO ARTÍSTICO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA | *06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA* |
| KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDETZA | *VICECONSEJERÍA DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES* |
| KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL* |

## HELBURUA

1. KULTURA ONDAREA BABESTEA, IKERTZEA, SUSTATZEA ETA ZABALTZEA
2. EUSKADIKO MUSEOEN SISTEMA GARATZEA
3. ARTXIBOEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA
4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA
5. JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTROA ETA KULTURA ONDAREARI AHOLKULARITZA JURIDIKOA

## *OBJETIVO*

1. *PROTECCIÓN, INVESTIGACIÓN, FOMENTO Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL*
2. *DESARROLLO DEL SISTEMA DE MUSEOS DE EUSKADI*
3. *DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE ARCHIVOS*
4. *DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE BIBLIOTECAS*
5. *ASESORAMIENTO JURÍDICO A LA DIRECCIÓN Y GESTIÓN DEL REGISTRO DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL*

## BETETZE MAILA

**1. KULTURA ONDAREA BABESTEA, IKERTZEA, SUSTATZEA ETA ZABALTZEA**

a) Kultura Ondarea Babestea.

Ekitaldi honetan Zermugatutako Kultur Ondasunen Erroldan sartu dira: Igeldoko funikularra eta parkea Donostian; Larreinetako funikularra Trapagaranen (Bizkaia) eta Ardoaren eta Mahastiaren Paisaia Kulturala (Arabako Errioxa). Azken espediente honek jada izendatuta dagoena jasotzen du eta mahastiaren paisaiako elementu bereizgarri berriak dakartza: etxolak, etxetxoak eta mahastiak zaintzeko eraikintxoak (43), haitzetan egindako dolareak (38) eta, horrekin batera, Ondare ez-materialarekin lotutako 4 adierazpen dokumentatu dira.

Halaber, Zermugatutako Kultur Ondasunen Erroldan sartzeko bi espediente abiarazi dira: Lea ibaiko Paisaia Industriala, 22 burdinola eta errota beren azpiegitura hidraulikoarekin biltzen dituena; 22 zubi, 4 dorretxe, 4 untziola, 2 baserri, 2 baseliza eta galdategi 1; Eibarko Zamakola Lantegi-etxea, armak egiteko makineria guztia jasotzen duena ere.

Kultur Ondarearen Zerrenda Nagusiari dagokionez Donostiako Bellas Artes eraikina sartzeko espedientea abiarazi da.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. PROTECCIÓN, INVESTIGACIÓN, FOMENTO Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL***

*a) Protección del Patrimonio Cultural.*

*En este ejercicio han pasado a formar parte del Registro de Bienes Culturales Calificados: El funicular y parque de atracciones de Igueldo en Donostia/San Sebastián; el funicular de la Reineta en el Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia) y el Paisaje Cultural del Vino y del Viñedo (Rioja alavesa). Este último expediente acoge a lo ya declarado e incorpora nuevos elementos característicos del paisaje del viñedo: chozos, casillas y guardaviñas (43), lagares rupestres (38) y, junto a ello, se han documentado 4 manifestaciones relacionadas con el Patrimonio Inmaterial.*

*Asimismo, se han incoado dos expedientes a incorporar al Registro de Bienes Culturales Calificados: el Paisaje Industrial del río Lea que agrupa 22 ferrerías y molinos con sus infraestructuras hidráulicas; 22 puentes, 4 casas-torres, 4 astilleros, 2 caseríos, 2 ermitas y 1 fundición; la Casa-Taller Zamacola de Eibar que también recoge toda la maquinaria para la fabricación armera.*

*En referencia al Inventario General de Patrimonio se ha incoado el expediente de inclusión del Edificio Bellas Artes de Donostia/San Sebastián.*

"Ondare Kultural Higiezinaren Plan Estrategikoa-ri" jarraituz, EHUrekin lankidetzan, zehazki Lurralde, Paisaia eta Ondarearen Katedrarekin, aurten mugatu da Gasteizko, Aguraingo, Bastidako eta Guardiako Hirigune Historikoei dagozkien fitxa katalografikoak berrikusi, berritu eta egitera. Era berean, hiru ibai-arroen paisaia industriala aztertu eta katalogatzeari ekin zaio: Barbadun eta Artibay (Bizkaia) eta Oria (Gipuzkoa).

*Continuando con el "Plan Estratégico de Patrimonio Cultural Inmueble", en colaboración con la UPV/EHU, en concreto con la Cátedra Territorio, Paisaje y Patrimonio, este año se ha centrado en la revisión, renovación y redacción de fichas catalográficas referentes a los Cascos Históricos de Vitoria-Gasteiz, Agurain, Labastida y Laguardia. Asimismo se ha abordado el análisis y catalogación de los paisajes industriales de tres cuencas fluviales: Barbadún y Artibay (Bizkaia), y Oria (Gipuzkoa).*

Azkenik, adierazi behar da 2014ko apirilaren 16an 18.419.864,63 euroko diru-zenbatekoa utzi dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gordailu eta Kontsignazio Kontuan, Debako Praileaitz kobazuloa (Gipuzkoa) kultur-ondare kalifikatu izendatu izanak sortutako ondare-erantzukizunaren kalte-ordain gisa, eta, hala, behin-behinean betearazten dela jurisdikzio-organo horrek 2013ko abenduaren 18ko Autoaren bidez eman zuen 12/2012 epaia.

*Finalmente, hay que señalar que el 16 de abril de 2014 se ha procedido a la consignación de la cantidad de 18.419.864,63 euros en la Cuenta de Depósitos y Consignaciones del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en concepto de indemnización por responsabilidad patrimonial derivada de la declaración como bien cultural calificado de la cueva de Praileaitz de Deba (Gipuzkoa), en cumplimiento de la ejecución provisional de la sentencia 12/2012, dispuesta por Auto de 18 de diciembre de 2013 por dicho órgano jurisdiccional.*

b) Euskal Kultura Ondarearen Katalogoak eta Inbentarioak.

*b) Catálogos e Inventarios de Patrimonio Cultural Vasco.*

Alor honetan, lan hauekin jarraitu da: Arabako Arkeologia Inbentarioa eguneratu eta zabaltzea eta Gipuzkoa eta Arabako mendiko burdinolen katalogoa.

*En este ámbito se ha proseguido con la actualización y ampliación del Inventario Arqueológico de Álava y el Catálogo de ferrerías de monte de Gipuzkoa y Álava.*

Ondare Ez-materialari dagokionez, Arabako landa-giroko Inauterien Erregistroa egiteari ekin zaio, 126 ospakizun identifikatu dira, bereziki Arabako Lautadako eskualdeko agerpenetan. Ikerketak haien ezaugarri nagusiak katalogatzen ditu: partaideak, ekintzak, berezitasunak, esanahia, bibliografia.

*En cuanto al Patrimonio Inmaterial se ha abordado un trabajo de Registro de los Carnavales Rurales de Álava, identificándose 126 celebraciones, con especial incidencia en las manifestaciones de la comarca de Llanada Alavesa. El estudio incluye una catalogación de las principales características del mismo: integrantes, actos, particularidades, significación, bibliografía.*

c) Material arkeologikoen kudeaketa.

*c) Gestión de materiales arqueológicos.*

Arkeologiako 39 material-multzo tokiz aldatzeko baimena eman da, erakusketak zein ikerketak egiteko.

*Se ha autorizado el traslado de 39 conjuntos de materiales arqueológicos para exposiciones y analíticas.*

Gipuzkoako material arkeologikoak eta paleontologikoak biltegiratzeko zentroari dagokionez, 2014. urtean 31 aztarnategiri dagozkien materialak biltegiratu dira, eta dagozkien aktak egin dira, behin alderatu ondoren. 35 ikertzailek jo dute bertara eta kontsulta-gela 129 aldiz erabili da. Zentroan zaintzen diren materialen artean, 139 pieza zaharberritu eta tratatu dira. Bildumak katalogatu eta dokumentatzeari dagokionez, Anton Kobako (Oñati) industegiko materialak inbentariatu-katalogatu dira; faunaren eta hainbat industrien 12.755k erregistrok osatzen dute, eta Erdi Aroko eta ondorengo 500 txanponen kalitate handiko argazki digitalak egin dira (1000 irudi)l erabilera publikoa izateko.

*En el Centro de Depósito e Investigación de los materiales arqueológicos y paleontológicos de Gipuzkoa, se constata que a lo largo de 2014 se han depositado materiales correspondientes a 31 yacimientos, emitiéndose las correspondientes actas, una vez hecho su cotejo. Han acudido a este Centro un total de 35 investigadores y la sala de consulta ha sido utilizada en 129 ocasiones. De los materiales allí custodiados se ha procedido a restaurar y tratar un conjunto de 139 piezas. En cuanto a los trabajos de catalogación y documentación de las colecciones, se ha realizado el inventario-catálogo de los materiales del yacimiento de Antón Koba (Oñati), integrado por 12.755 registros de fauna e industrias diversas y se han hecho fotografías digitales de alta calidad de 500 monedas de época medieval y postmedieval (1000 imágenes) para uso público.*

Bestalde, arkeologia-materialak katalogatzeko Aginduaren bidez laguntzak jaso dituzte 7 proiektuk, xedetzat 9 esku-hartze arkeologiko dituztenak. Horri esker egin dira materialen 9681 fitxa/erregistro eta 3124

*Por otro lado, a través de la Orden de Catalogación de materiales arqueológicos han recibido ayudas 7 proyectos, que tienen por objeto 9 intervenciones arqueológicas. Se han elaborado, gracias a ello, 9681*

materialen irudien fitxategi (argazkiak eta marrazkiak).

*fichas/registros de materiales, y 3124 ficheros de imágenes de materiales (fotografías y dibujos).*

d) Hirigintza-plangintza eta ingurumen-eraginak.

*d) Planeamiento urbanístico e impactos ambientales.*

Hirigintza-plangintzako eta Lurralde Antolamendurako 72 dokumentu aztertu dira guztira, batez ere hainbat udal eta aldundiren eskariz. Orotara, 14 txosten egin dira.

*Se han analizado un total de 72 documentos de planeamiento urbanístico, esencialmente a petición de Ayuntamientos y Diputaciones, emitiéndose un total de 14 informes.*

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak dioenari jarraituz, 18 txosten eman ditugu.

*De conformidad con la previsión recogida en la Ley de Suelo y Urbanismo, se han emitido 18 informes.*

Bestalde, 80 txosten egin dira ebaluazio bateratua deiturikoarekin lotutako ingurumen-eraginari buruz.

*Igualmente, se ha informado un conjunto de 80 impactos ambientales relacionados con la denominada evaluación conjunta.*

e) Programak eta proiektuak.

*e) Programas y proyectos*

Urtean zehar Munduko Ondasun izendatzeko bi hautagaitza finkatzen lan egin da. Lehendabizikoa, Donejakue bidea zabaltzea kostaldeko Bidea sartzeko, Euskadi, Kantabria, Asturian, Galizia eta Errioxatik dihoana. Bigarrena, Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta Mahastiaren Paisaia Kulturala, Errioxako erkidegoarekin partekatzen dena. Bi hautagaitzek UNESCOren ebaluazio-fasea gainditu dute balizko deklarazioa izateko.

*A lo largo del año se ha actuado en la consolidación de dos candidaturas para su declaración como Patrimonio Mundial. La primera de ellas, la ampliación del Camino de Santiago para la incorporación de la Ruta de la Costa que recorre las Comunidades del País Vasco, Cantabria, Asturias, Galicia y La Rioja. La segunda, el Paisaje Cultural del Vino y del Viñedo de La Rioja y Rioja Alavesa que se comparte con la comunidad de La Rioja. Ambas han pasado a la fase de evaluación por parte de la UNESCO para su posible declaración.*

Donejakue Bideari dagokionez, Euskal Herriko Donejakue Bidearen Lagunekin, eta beste erakunde batzuekin, urtero lan egiten da Donejakue bidea mantendu eta hobetzen, eta ezagutzera ematen. Ildo horretan, Kontseilu Xakobearrak egiten dituen deialdietara joaten gara.

*En relación al Camino de Santiago, se trabaja anualmente en colaboración con los Amigos del Camino de Santiago del País Vasco, y otras entidades, en el mantenimiento y mejora de la Ruta Jacobea y en su promoción. En esta línea, se acude a las convocatorias que realiza en Consejo Jacobeo.*

“Europako Historiaurreko Labar Artearen Bideak (EHLAB)” Nazioarteko Elkartean parte hartzen jarraitzen dugu, eta Elkarte horrek hainbat Europako foroetan egotea sustatzen dugu, Europako Kontseiluak Kultura Ibilbide bezala sailkatzea lortu ondoren.

*También se continúa participando en la Asociación Internacional “Caminos de Arte Rupestre Prehistóricos Europeos (CARP)” fomentando la presencia de esta Asociación en diferentes foros europeos después de obtener su clasificación como Itinerario Cultural por parte del Consejo de Europa.*

Halaber, beste Erkideko batzuekin batera, Ondare Ez-materialaren, Paisaia Kulturalaren eta XX mendeko Ondarearen Plan Nazionalak jarraitu eta ebaluatzen ditugu.

*Asimismo, junto con otras Comunidades, se forma parte del seguimiento y evaluación de los Planes Nacionales de Patrimonio Inmaterial, de Paisaje Cultural y de Patrimonio del siglo XX.*

f) Kultura Ondarea hedatzea.

*f) Difusión del Patrimonio Cultural.*

Hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan, “Kultura Ondarea Saria” proiektuaren lehendabiziko programa amaitu da, hezkuntza-sisteman euskal kultura-ondarea ezagutu eta zabaltzeari bideratua dagoena.

*En coordinación con la administración educativa, se ha concluido el primer programa del proyecto “Kultura Ondare Saria” orientado al conocimiento y difusión del patrimonio cultural vasco en el sistema educativo.*

Era berean, Mondragon Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien fakultatearekin lankidetzan (Gradu bukaerako programa) “Euskal kultura-ondare materiagabearen aberastasuna ikertu eta zabaltzeko ekintzak” delakoari dagokion proiektu bat egin da, eta bertan hiru graduko ikaslek parte hartu dute. Ikerketa honek, dagokion bideoarekin, Mondragon Unibertsitateko graduko lan onenaren saria jaso du.

*De igual modo en colaboración con la facultad de Ciencias Humanas y de la Educación, de la Universidad de Mondragón. Programa fin de Grado, se ha elaborado un proyecto relativo a “Actividades de investigación y difusión de la riqueza del patrimonio cultural inmaterial vasco”, en el que han participado tres graduandos. Este estudio, acompañado del correspondiente video ha recibido el premio de la Universidad de Mondragón al mejor trabajo de Grado.*

Arkeoikuskaren argitalpenak jarraipena izan du, 2013ko alea aurkeztuz eta gainera bi argitalpen berri atera dira. Lehendabizikoa, Zurea eta Denona bildumaren barruan,

*Se ha proseguido con la publicación de Arkeoikuska 2013 y además se han editado dos nuevas publicaciones. La primera, dentro de la colección Zurea*

"Haitzuloetako arte paleolitikoa Euskal Herrian"-i buruz. Bigarrena, EKOB bildumaren barruan dagoena, "Madril-Irun lineako telegrafia optikoko dorreak Euskal Autonomia Erkidegoan barrena (1946-1855)"-i buruzkoa.

g) Jendearekiko arreta.

Alor honetan Kultur Ondareari lotutako 463 kontsulta erantzun dira. Era berean, arte lanen esportaziorako guztira 19 ziurtagiri igorri dira.

**2. EUSKADIKO MUSEOEN SISTEMA GARATZEA**

a) Euskadiko Museo eta Bilduma Erregistroa.

Euskadiko Museo eta Bilduma Erregistroa kudeatu eta eguneratzea. 2014an erregistrorako eskaera berriak jaso dira eta idazpenak gauzatu dira, inskribatutako museoei dagozkien datuak aldatzeari buruzkoak.

b) Inbentarioa.

Euskadiko Museo eta Bildumetako funtsen Inbentario Orokorra antolatu eta eguneratuta edukitzeko honako ekintza hauekin jarraitu da: funtsen kudeaketa eta lotutako prozesuetarako sareko sistema informatikoan (EMSIME) museo eta bildumak sartzea, hizkuntza normalizatua koordinatu eta kudeatzea, museoei euskarri teknikoa ematea eta erabiltzaile berriak prestatzea.

c) Katalogo kolektiboa.

Euskadiko 23 museo eta bildumen katalogo kolektiboa garatu eta argitaratu da interneten; katalogoa 30.153 piezak osatzen dute, inbentariatutako funtsen %42a.

d) Egileen datu-basea.

Museoek gordetzen dituzten lanen egileei buruzko datu-baseak sortzea, mantentzea eta eguneratzea.

e) Museo eta bildumentzako laguntzak.

Museoen sustapenari eta ondarearekin eta kulturaren zabalpenarekin lotutako ekintzen garapenari zuzendutako laguntza-programa.

f) Museoen webgunea.

Euskadiko museoen eta bildumen webgunea eguneratu eta egunean jartzeko lanak.

g) Laguntza izendunak.

Beren kudeaketan parte hartu edo laguntzen dugun museo hauei laguntza izendunak ematen jarraitu da: Bilboko Arte Eder Museoa, Bilboko Guggenheim Museoa, Vitoria-Gasteizko Artium Museoa, Gernikako Bakearen Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa, Euskal Herriko Meatzaritza Museoa, Artziniegako Museo Etnografikoa eta San Telmo Museoa.

*eta Denona, dedicada a "El arte rupestre paleolítico en el País Vasco". La segunda, que forma parte de la colección EKOB, se ha dedicado a "Las torres de telegrafía óptica de la línea Madrid-Irún, a través de la Comunidad Autónoma Vasca (1846-1855)."*

*g) Atención al público.*

*En este ámbito se han atendido un total de 463 consultas relacionadas con el Patrimonio Cultural. De igual modo se han expedido 19 certificados de obras de arte para su exportación.*

***2. DESARROLLO DEL SISTEMA DE MUSEOS DE EUSKADI***

*a) Registro de Museos y Colecciones de Euskadi.*

*Gestión y actualización del Registro de Museos y Colecciones de Euskadi. En 2014 se han recepcionado nuevas solicitudes de registro y se han realizado asientos respecto a modificaciones de datos concernientes a museos ya inscritos.*

*b) Inventario.*

*Con el fin de organizar y mantener actualizado el Inventario General de los fondos de los Museos y Colecciones de Euskadi, se ha continuado con la integración de nuevos museos y colecciones en el Sistema informático en red (EMSIME) para la gestión de fondos y procesos asociados, coordinación y gestión del lenguaje normalizado, soporte técnico a los museos y formación de nuevos usuarios de la aplicación.*

*c) Catálogo colectivo.*

*Se ha desarrollado y publicado el catálogo colectivo de los fondos de 23 museos y colecciones del País Vasco en Internet, conformado por 30.153 piezas, el 42% de los fondos inventariados.*

*d) Base de datos de autores.*

*Creación, mantenimiento y actualización de la base de datos de autores de las obras albergadas en los museos.*

*e) Ayudas a los museos y colecciones.*

*Programa de ayudas destinado a la promoción museística y al desarrollo de actividades relacionadas con el patrimonio y la difusión cultural.*

*f) Web de museos.*

*Labores de actualización y puesta al día de la web de museos y colecciones de Euskadi.*

*g) Ayudas nominativas.*

*Se ha continuado con las ayudas nominativas a los museos en cuya gestión se participa o colabora: Museo de Bellas Artes de Bilbao, Museo Guggenheim de Bilbao, Museo Artium de Vitoria-Gasteiz, Museo de la Paz de Gernika, Museo Cristóbal Balenciaga, Museo de la Minería del País Vasco, Museo Etnográfico de Artziniega y Museo San Telmo.*

## 3. ARTXIBOEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA

a) Artxibo-politikaren kudeaketari dagokion eremuan, 2014. urtean helburua EASNa garatzeko eta sustatzeko programak mantentzea izan da. Enfasi berezia jarri da aurreko urteetan sortutako baliabide dokumental eta artxibistikoetatik ondorioztatutako sinergiak aprobetxatzen.

b) 2014ko programarik garrantzitsuena Bilboko Euskadiko Artxibo Historikoaren egoitza berriaren inaugurazioa (urtarrilaren 23an) eta abian jartzea izan da (6.700 m2 erabilgarri, 4 solairu sotoan eta 7 altueran). Bergarako Irargi artxibo-zerbitzuaren lekualdaketa eta instalazioa burutu da.

Eraikineko instalazioen mantentze-kontratuen tramitazio prozesu konplexua bideratu eta jarraipenaren kontrola burutu da.

c) 2014an Interneteko atari berria diseinatu da eta nazioarteko estandar (Ica-Atom) bat gehitzeko oinarriak jarri dira. Estandar horrek ahalbidetuko du, batetik, atariaren elkarreragingarritasuna, eta bestetik, 6,5 milioi erreferentzia dokumentalen eta horiei lotutako 3,5 milioi irudi digitalen kudeaketa iraunkorra.

Bi urteko programa diseinatu da, atari intuitiboa eta erabiltzaileentzako ulerterraza sortzea helburu duena, horretarako tresna eta baliabide orokorrak (besteak beste, wikipedia edo geolokalizatzaileak) gehituko dira.

d) Artxibo publiko eta pribatuen datu-baseak handitzen jarraitu dugu, dagokion baimena eskuratu orduko Dokukliken kargatzeko: Olazabal artxibo karlista; 1936-39ko Gerra Zibileko funtsak; Acedo Artxiboa; eta funts judizialak (1850-1950).

e) XIX-XX. mendeetako (karlismoa, Gerra Zibila, frankismoa) digitalizatutako funts berri eta oso handiarekin lan egin da, Bizkaiko hainbat artxibo pribatuetatik (220 jatorri desberdin) datozenak.

Funts garrantzitsuenak identifikatu eta izugarrizko material hori ordenatzen hasi dira.

f) 2014an Euskadiko Artxibo, Dokumentu eta Ondare Dokumentalaren Lege aurreproiektua berriaren idazketaren prozesu luzea bukatu da, EAEko sektore profesionalen ekarpenak gehitu dira.

g) 2014an Artxiboen Sistema Nazionalaren laguntza programekin jarraitu dugu, programok artxibo sarearen lidergoa gauzatzen dute Zuzendaritzaren aldetik. Ildo horretan, Irargitik dirulaguntzen politikarekin jarraitu da bi deialdien bidez: batetik, artxibo publikoen dirulaguntza deialdia udal artxibo-sistemetako funtsak antolatzeko eta mantentzeko (78 proiektu diruz lagundu dira aurkeztutako 90etik, 78 toki-entitate ordezkatzen dituzte); eta bestetik, artxibo pribatuen deialdia (19 proiektu lagundu dira, aurkeztutako 23tik).

## *3. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE ARCHIVOS*

*a) En el ámbito de la gestión de la política de archivos, 2014 ha sido un año en el que se han mantenido los programas de fomento y desarrollo del SNAE. Se ha puesto particular énfasis en las sinergias derivadas del aprovechamiento de recursos documentales y archivísticos generados en años precedentes.*

*b) El programa más importante en 2014 ha sido la inauguración (23 de enero) y puesta en marcha en Bilbao de la nueva sede del Archivo Histórico de Euskadi (6.700 m2 útiles; 4 plantas en sótano + 7 alturas), y la conclusión del traslado e instalación en el mismo del servicio de archivo Irargi (Bergara).*

*Se ha ordenado el complejo proceso de control de la tramitación y el seguimiento de los contratos de mantenimiento de las instalaciones del edificio.*

*c) En 2014 se ha diseñado el nuevo portal web y se han puesto las bases para la incorporación de un estándar internacional (Ica-Atom) que garantice la interoperabilidad del portal y una gestión sostenible de sus 6,5 millones de referencias documentales, a las que van asociadas 3,5 millones de imágenes digitales.*

*Se ha diseñado un programa bianual cuyo objetivo será crear un portal intuitivo y de fácil comprensión para el ciudadano, con la incorporación de herramientas y recursos genéricos (como wikipedia o geolocalizadores, entre otros).*

*d) Se ha continuado alimentando las bases de datos de archivos públicos y privados para su carga en "Dokuklik" en el momento en que se cuente con las autorizaciones correspondientes: Archivo carlista Olazabal; Fondos de la guerra civil 1936-39, Archivo Acedo; Fondos judiciales (1850-1950).*

*e) Se ha trabajado con un nuevo –y enorme- fondo digital (220.000 imágenes) de documentación de los siglos XIX-XX (carlismo, guerra civil, franquismo) procedente de diferentes archivos privados de Bizkaia (220 procedencias distintas).*

*Se han identificado los principales fondos, y se ha empezado a ordenar este material ingente.*

*f) En 2014 se ha concluido el largo proceso de redacción de un nuevo Anteproyecto de Ley de Archivos, documentos y Patrimonio Documental de Euskadi, incorporando aportaciones procedentes del sector profesional de la CAE.*

*g) En 2014 se ha continuado con los programas de apoyo al Sistema Nacional de Archivos que son el nervio del liderazgo de la red de archivos por parte de la Dirección. En este sentido, el Archivo Histórico de Euskadi ha continuado con la política de subvención y apoyo a la organización de fondos y mantenimiento de Sistemas de archivos municipales (78 proyectos –que representan a 78 entidades locales, de 90 presentados) y privados (19 proyectos de 23 presentados), por medio de dos órdenes de subvención de archivos municipales y archivos no públicos.*

h) 2014an udal dokumentazioa ebaluatzeko eta xahutzeko programarekin lanean jarraitu da, EAEko Toki Administrazioko dokumentu-serieak identifikatzeko, baloratzeko eta hautatzeko hainbat txosten egin dira.

*h) En 2014 se ha continuado trabajando con el programa de valoración y expurgo de documentación municipal con la realización de informes de identificación, valoración y selección de series documentales del ámbito de la Administración Local de la CAE.*

i) Dirulaguntza izendun baten bidez, Euskadiko Artxibozainen Elkartearekin (ALDEE) egindako lankidetza akordioarekin jarraitu da profesionalentzako prestakuntza plana gauzatzeko xedearekin. Halaber, Arabako koadrilei dirulaguntza izendun bat eman zaie, horrela Arabako eskualdeko artxibo sareen funtzionamendua bermatu da, eta ia-ia lurralde osoa hartzen du.

*i) Se ha continuado, mediante una subvención nominativa, con el acuerdo de colaboración con la Asociación de Archiveros de Euskadi (ALDEE), al objeto de desarrollar un plan de formación profesional. Asimismo, se ha concedido una subvención nominativa a las cuadrillas alavesas; de este modo se ha garantizado el funcionamiento de la red de Archivos Comarcales de Álava, que prácticamente cubren la totalidad de su territorio.*

j) Horretaz gainera, dirulaguntza izendunak eman dira Euskadiko titulartasun pribatuko edo artxibo erdipubliko nagusienetako funtsak deskribatzeko eta kudeatzeko: elizbarrutietako hiru artxiboak, Eresbil Fundazioa (Musikaren Euskal Artxiboa), Sabino Arana Fundazioa, Mario Onaindia Fundazioa, Ramón Rubial Fundazioa, Blas de Otero Fundazioa eta Lazkaoko Beneditarren Fundazioa.

*j) Además de ello, se han concedido subvenciones nominativas para la descripción de fondos y la gestión de algunos de los principales archivos semipúblicos o de titularidad privada del País Vasco: los tres archivos diocesanos, Fundación Eresbil (Archivo Vasco de la Música), Fundación Sabino Arana, Fundación Mario Onaindia, Fundación Ramón Rubial, Fundación Blas de Otero y Fundación Benedictinos de Lazkao.*

## 4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA

## *4. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE BIBLIOTECAS*

a) Lege-gordailu bidez sarturiko monografiak katalogatzea.

*a) Catalogación de las monografías ingresados mediante Depósito Legal.*

b) Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS) Katalogo Kolektiboa on line. Jarraitu dugu katalogo honen mantentze-lanekin.

*b) Mantenimiento y soporte del Catálogo Colectivo en línea de las Bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi (RLPE).*

c) Euskarazko baliabide tekniko berariazkoak garatzea eta erabiltzea. 2014an jarraitu dugu autoritateen datu-base elebidunean gai berriak sartzen eta txarto edo bikoiztuta dauden gaiak arazten.

*Se han contratado los trabajos para mejorar las funcionalidades de la aplicación de mantenimiento de la base de datos de toponimia y la consulta del Nomenclátor Geográfico de Euskadi. Por un lado se han realizado mejoras en la interfaz que facilitan y agilizan las actualizaciones de los datos. Por otro lado, se han realizado modificaciones en el visor de mapas para adecuarlo a los recursos tecnológicos que EJIE puso en marcha en 2014 (OracleSpatial). Con ello cualquier modificación se verá al instante tanto en la base de datos como en el mapa.*

b) Kartografian, bide-seinaleetan eta hizkuntza paisaian euskararen erabilera eta toponimia zuzena hedatzeari bultzada eman zaio:

• EAEko Izendegi Geografikoari zabalkundea eman zaio: Eusko Jaurlaritzaren GIS korporatiboan integratuta dago eta datuen eguneratzeak bidaltzen dira aldiro.

• Aldatutako izen ofizialei zabalkundea eman zaie: administrazio ezberdinetara bidali dira (foru aldundiak, EUSTAT, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinak, Instituto Geográfico Nacional, etab.), hainbat kartografia-enpresatara, Posta eta Telegrafoetara, Telefónica eta beste enpresa askotara eta hainbat norbanakoei, etab.

• Toponimiaren zabalkundean eragile garrantzitsuak direnek erabiltzen dituzten toponimoen jarraipena egin da, bereziki Interneten oso erabiliak diren tresnak aztertuz; Google Maps-eko hainbat leku-izen zuzendu dira, Geonames-eko eta OpenStreetMap-eko toponimo asko eguneratu dira, Lurraldebus, Bizkaibus eta beste hainbat enpresaren web orriak aztertu eta zuzendu beharreko leku-izenez oharrak egin zaizkie.

c) Toponimia-arloan lankidetza eta koordinazioa sustatu dira gainerako erakunde publikoekin eta Euskaltzaindiarekin.

• Espainiako Instituto Geográfico Nacional-ekin (IGN) lankidetzan jarraitu da. Horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen EAEko Toponimiako datu-basearen bertsio eguneratua bidali zaio erakunde horri. Horrez gain, EAEko 31.000 toponimoren zuzenketa egiteko eskabidea heldu da IGNtik 2014aren bukaeran.

• Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialen aldaketak bultzatu dira behar zen kasuetan. Ondorioz, udalerri batek izena aldatu du, eta Arabako bederatzi administrazio batzarrenak eta EAEko bi auzorenak aldatzeko espedienteak burutu dira.

6. Itzulpen Memorien Banku Publikoaren lanak amaitu dira eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpenak kargatu dira, garbitu eta gero. Azken probak egin dira aplikazioa Produkzioan jartzeko. Banku hau IVAPeko Itzultzaile Ofizialak kudeatuko duenez, erakunde horrekin sinatzeko hitzarmena landu eta adostu da.

7. Itzulpen automatikoa. ES→EU (gaztelania-euskara) itzulpen-norabidea hobetzen jarraitzeaz gain, EU→ES (euskara-gaztelania) eta EN→EU (ingelesa-euskara) itzulpen-norabide berriak gehitu zaizkio www.itzultzailea.euskadi.net webguneari. Horrez gain, EU→EN itzulpen-norabidearen lehenengo eta bigarren faseetako lanak martxan jarri dira.

*b) Se ha fomentado el uso correcto de los topónimos en el paisaje lingüístico, en la señalización viaria y en la cartografía:*

*• Se ha hecho la difusión del Nomenclátor Geográfico de la CAPV: está integrado en el GIS corporativo del Gobierno Vasco y se envían actualizaciones de datos periódicamente.*

*• Se ha dado difusión a los nombres oficiales modificados: se han enviado a diferentes administraciones (diputaciones forales, EUSTAT, departamentos del Gobierno Vasco, Instituto Geográfico Nacional, etc.), empresas de cartografía, Correos y telégrafos, Telefónica y otras empresas, así como a particulares.*

*• Se ha hecho el seguimiento del uso de los topónimos por los agentes más importantes en la difusión de la toponimia, analizando especialmente las herramientas de Internet; se han corregido varios lugares en Google Maps, y se han actualizado muchos topónimos de Geonames y OpenStreetMap. Además se han analizado las páginas web de empresas como Lurraldebus, Bizkaibus y otras similares y se han enviado notificaciones sobre los nombres de lugar que deben ser corregidos.*

*c) Se ha fomentado la colaboración y la coordinación en el ámbito de la toponimia con el resto de entidades públicas y con la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia.*

*• Se ha seguido colaborando con el Instituto Geográfico Nacional (IGN). Así, se ha enviado a esa entidad la versión actualizada de la base de datos de toponimia de la CAPV gestionada por la Viceconsejería de Política Lingüística. Además, se está llevando a cabo la corrección de 31.000 topónimos de la CAPV solicitada por esa entidad a finales de 2014.*

*• Se han impulsado las modificaciones de los nombres oficiales de los municipios y núcleos de población en los casos en que ha sido necesario. Como consecuencia de ese trabajo se han realizado los expedientes de cambio de nombre de un municipio, nueve concejos alaveses y dos barrios de la CAPV.*

*6. Se ha finalizado con los trabajos del Banco Público de Memorias de Traducción y se han cargado las memorias de traducción del Servicio Oficial de Traductores. Se han llevado a cabo las últimas pruebas para poner la aplicación en Producción. Como el Banco lo gestionará el Servicio Oficial de Traductores del IVAP, se ha elaborado y consensuado el convenio que se firmará con dicha entidad.*

*7. Traducción automática. Además de seguir mejorando la dirección de traducción ES→EU (castellano-euskera), se han añadido dos nuevas direcciones de traducción al sitio web www.itzultzailea.euskadi.net: EU→ES (euskera-español) y EN→EU (inglés-euskera). También se han puesto en marcha los trabajos de la primera y segunda fase de la dirección de traducción EU→EN.*

**11. EAEz BESTEKO EUSKARAREN LURRALDEETAKO ERAGILE PUBLIKO ZEIN PRIBATUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA**

1. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetza hitzarmenaren baitan Ipar Euskal herriko eragileentzako diru-laguntza deialdia bideratu da. Deialdira 94 egitasmo aurkeztu dira, eta horietatik 80 diruz lagundu dira.

2. Euskarabidea – Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko lankidetza hitzarmenean aurreikusitako lanei dagokienez, honako eginkizun hauek bete dira:

• Helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrean, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum –HEOC– berriaren inguruko irizpideak kontrastatu dira eta Euskarabideak, bere ekarpenak egin ditu.

• Nafarroako eta EAEko mapa soziolinguistikoetan jorratu diren aldagaiak modu berean definituta egon daitezen, bi erakundeetako teknikarien artean maiztasun handiko informazio-trukaketa egon da 2014an zehar.

3. Nafarroako Euskararen Kultur Elkargoari dirulaguntza eman zaio, erakunde horren urteko jarduera laguntzeko.

**12. EUSKARAREN GARAPEN SOZIALEAN DIHARDUTEN ERAGILEEN LANA BULTZATZEA**

1. EUSKALGINTZA deialdia. Gizarte bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak: aisialdia, harreman sareak, erdal munduaren hurbilketa, euskararen ondarea, jardunaldiak, omenaldi esanguratsuak, familia bidezko transmisioa, irakurzaletasuna, etorkinak, kalitatezko ekarpenak, eta abar. 213 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 131 diruz lagundu dira.

2. HEDABIDEAK deialdia. Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua, toki-aldizkariak, aldizkako argitalpenak, irratiak, telebistak eta Internet bidezko hedabideak. 137 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 122 diruz lagundu dira.

3. Nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntza deialdia. 8 eskabide aurkeztu dira eta horietatik 7 diruz lagundu dira.

***11. FOMENTAR LA COORDINACIÓN CON AGENTES PÚBLICOS Y PRIVADOS DE LOS TERRITORIOS VASCOS AJENOS A LA CAPV***

*1. En el marco del convenio entre la Viceconsejería de Política Lingüística y la entidad Euskararen Erakunde Publikoa de Iparralde, se ha tramitado la convocatoria de ayudas dirigidas a agentes de Iparralde. Se han presentado un total de 94 proyectos, de los que han sido subvencionados 80.*

*2. En relación al convenio de colaboración con Euskarabidea – Gobierno de Navarra, se han llevado a cabo las siguientes tareas:*

*• En el ámbito de la euskaldunización de adultos, se han contrastado los criterios relativos al Currículum Básico de Euskaldunización de adultos –HEOC–, al que Euskarabidea ha realizado sus aportaciones.*

*• Con el fin de que las variables elaboradas en los mapas sociolingüísticos de Navarra y la CAE estuvieran definidas de la misma manera, ha habido un fluido intercambio de información entre los técnicos de ambas instituciones.*

*3. Se ha concedido una ayuda a la Fundación Euskararen Elkargoa de Navarra, para apoyar el programa de actuación anual de dicha entidad.*

***12. IMPULSAR LA LABOR DE LOS AGENTES QUE TRABAJAN EN EL DESARROLLO SOCIAL DEL EUSKERA***

*1. Convocatoria EUSKALGINTZA. Se presentaron 213 proyectos, de los cuales se han subvencionado 131. Estas subvenciones están dirigidas a la promoción, difusión y/o normalización del euskera en los diferentes ámbitos de la vida social: ocio, acercamiento del mundo no vascohablante al euskera, patrimonio del euskera, jornadas, homenajes, transmisión familiar, fomento de la lectura, inmigrantes, aportaciones de calidad, etc.*

*2. Convocatoria HEDABIDEAK. Subvenciones dirigidas a la consolidación, penetración, desarrollo y normalización de los medios de comunicación en euskera: prensa diaria íntegramente en euskera, revistas locales, publicaciones periódicas, radios, televisiones y medios de comunicación a través de Internet. Se han presentado 137 proyectos y se han subvencionado 122.*

*3. Convocatoria de subvenciones destinada a incrementar la presencia del euskera en las ediciones digitales de los diarios escritos en papel que utilizan principalmente el castellano y en las agencias de noticias que también difunden noticias en euskera a través de Internet. Se han presentado 8 solicitudes y se subvencionaron 7.*

**13. EUSKARAREN UNIBERTSOA ETA BIZIPENA GIZARTE OSOAREN AURREAN DUINDU ETA PRESTIGIATZEA ETA EUSKARAREN KULTUR KONTSUMOA SUSTATZEA**

1. EITBrekin lankidetza-hitzarmena eta horren adenda sinatu dira, Euskara Eusko Jaurlaritzaren komunikazio-ardatza izateko eta horren baitan euskararen erabilera soziala indartzeko.

Kanpainaren helburuak honako hauek izan dira: Euskaraz dakitenek, nahiz eta gutxi jakin, euskara erabiltzearen garrantzia azpimarratzea; euskararen erabilera sozialak eta aldeko jarrerak hizkuntza normalkuntzan duten garrantzia azpimarratzea; euskara edozein egoeratan erabiltzeko gonbit atsegina egitea; euskararen bizi-indarra garatzeko neurriak hartzea; euskararen erabilera sustatu, bereziki esparru ez formaletan, erabilerari prestigioa emanez, eguneroko bizitzan duen presentzia indartzea eta areagotzea.

2. Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, abenduaren 3an, ekitaldi instituzionala antolatu zen. Bertan, beste batzuen artean, euskararen presentzia IKTetan nabarmendu zen eta euskara batuaren aitzindariak omendu ziren.

3. Distribuidora de Televisión Digital S.A. (DTS) enpresari emandako urte anitzeko diru-laguntza baten bidez, 2014-2016 epealdian, Canal + plataformaren fikzio-estreinaldietan euskarazko azpitituluak jarriko dira.

4. Bidegileak bildumaren 12 biografia argitaratu eta aurkeztu dira.

Bestalde, Euskara Mintzagai bildumaren 9. eta 10. zenbakiak argitaratu dira: Herri-egutegia: negua eta Baserriaren eraikuntza.

5. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari (EHBE) 2014. urtean diru-laguntza izenduna eman dio Eusko Jaurlaritzak elkartearen urteko lan-programak finantzatzeko (bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta bere etorkizuna bermatu).

6. Literatura unibertsaleko liburuak euskaratzeko EIZIEri (Euskal Idazle, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea) ematen zaion diru-laguntza izendunaren bidez bost lan berri argitaratu dira (hiru Literatura Unibertsala bildumakoak eta bi Urrezko Biblioteka bildumakoak).

2014an e-book formatuan bi bildumen liburuak argitaratzea erabaki zen. 2013 urtera bitartekoetan egileen baimena behar izan denez, kasu guztietan ezin izan da egin, horregatik jabari publikokoak eta espresuki baimena eman dutenenak argitaratu dira. Momentuz Literatura Unibertsaleko lau liburu jarri dira salgai eta Urrezko Bibliotekako zortzi liburu.

7. Andoaingo Udalari diru-laguntza eman zaio Rikardo Arregi Euskarazko Kazetaritza Sariaren XXVI edizioa finantzatzeko.

8. Euskalgintza izeneko diru-laguntza deialdiaren

***13. DIGNIFICAR Y PRESTIGIAR EL UNIVERSO Y LA VIVENCIA DEL EUSKERA ANTE TODA LA SOCIEDAD Y FOMENTAR EL CONSUMO CULTURAL DEL EUSKERA***

*1. Se firmaron un nuevo convenio de colaboración con EITB y una adenda al mismo cuyo objetivo es que el euskera sea un eje de comunicación del Gobierno Vasco para reforzar el uso social del euskera.*

*Los objetivos de la campaña han sido: Incidir en la importancia del uso del euskera entre las personas vascohablantes; resaltar la importancia que tienen el uso social del euskera y las actitudes positivas hacia la lengua en su proceso de normalización; realizar una invitación amable para hablar en euskera en cualquier ocasión; adoptar medidas que contribuyan a la revitalización de la lengua; promocionar el uso del euskera, sobre todo en ámbitos no formales, prestigiando su uso y reforzando su presencia en la vida diaria.*

*2. Para conmemorar el Día Internacional del Euskera, el 3 de diciembre, se organizó un acto institucional en el que se resaltó la presencia del euskera en la TICs y se rindió homenaje a los pioneros del euskera batua.*

*3. Mediante una subvención directa plurianual (2014-2016) a la empresa Distribuidora de Televisión Digital S.A. (DTS), se subtitularán en euskera los estrenos de ficción de la plataforma Canal +.*

*4. Se han publicado y presentado 12 biografías de la colección Bidegileak.*

*También, se han publicado los números 9 y 10 de la colección Euskara Mintzagai: Herri-egutegia: negua y Baserriaren eraikuntza.*

*5. El Gobierno Vasco ha otorgado una subvención nominativa a Euskal Herriko Bertsozale Elkartea (EHBE), para la financiación de los programas que ha desarrollado en 2014 (proteger, promocionar, investigar y garantizar el futuro del bertsolarismo).*

*6. Mediante la subvención nominativa otorgada a EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes Vascos) se han traducido cinco libros al euskera (tres de la colección Literatura Unibertsala y dos de la colección Urrezko Biblioteka.*

*En 2014 se decidió publicar en formato e-book los libros de ambas colecciones. En el caso de los publicados hasta 2013 eran necesarios permisos de autor para este formato por lo que se ha comenzado por publicar los de propiedad pública y los que han dado permiso específico. Por el momento se han puesto a la venta cuatro libros de la colección Literatura Unibertsala y ocho de Urrezko Biblioteka.*

*7. Se ha concedido una subvención al Ayuntamiento de Andoain para la financiación de la XXVI edición del Premio Rikarko Arregi de Periodismo en euskera.*

*8. Mediante la convocatoria Euskalgintza y el*

bidez eta Topaguneak garatzen duen Auzoko programari esker, etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmoak jarri dira abian.

*programa Auzoko gestionado por Topagunea, se han desarrollado diferentes programas para acercar el euskera a la población inmigrante.*

9. Euskaldunei begira webgune bat egin da eta sare sozialetan dinamizatu da. Helburua: euskaraz ez dakiten herritarrak euskara erabiltzera animatzea.

*9. Se ha elaborado una página web en euskera, dinamizándola en las redes sociales, cuyo objetivo es animar a usar el euskera a las personas que conocen la lengua.*

10. Galtzagorri elkartearekin jarraipena eman zaio Bularretik Mintzora izeneko programari, EAEko herri gehiagotara zabalduz eta lortutako emaitzen ebaluazioa eginez. 0-6 adin tarteko haurrei zuzendutako irakurketa-ohiturak sustatzeko kanpaina da.

*10. Con la asociación Galtzagorri se ha dado continuidad al programa Bularretik Mintzora, extendiéndolo a más localidades de la CAE y realizando la evaluación de los resultados obtenidos. Es una campaña de fomento del hábito de lectura dirigida a niños y niñas de edades comprendidas entre 0 y 6 años.*

11. Mintzola Fundazioari (euskararen ahozkotasunaren esparruan erreferentziazko ikerketa bilgunea) diru-laguntza bat eman zaio, fundazioaren jarduera finantzatzeko.

*11. Se ha concedido una subvencionado a la Fundación Mintzola (centro de investigación de referencia en el ámbito de la comunicación oral en euskera) destinada a sufragar sus programas de trabajo.*

**14. EUSKARAREN NAZIOARTEKO SUSTAPENA ETA ELEANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA**

***14. PROMOCIÓN INTERNACIONAL DEL EUSKERA Y COMPROMISO POR LA GESTIÓN DEL MULTILINGÜISMO***

1. Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlana mantendu da.

*1. Se ha mantenido la colaboración con Etxepare Euskal Institutua.*

2. Diru-laguntza izenduna UNESCO katedrari, 2014an hizkuntza gutxituetako erkidegoen ordezkariekin elkarlanean, hizkuntza alorreko aholkularitza lana egiteko, irakaskuntza eleanitzaren garapenerako irakasleen prestakuntza sustatzeko eta hizkuntza gutxituen aldeko jarrera lantzeko. UNESCO Etxearekin lankidetzan, 2014ko Giza Garapenari buruzko txostenaren Laburpen Exekutiboa euskarara itzuli eta editatu da.

*2. Se ha concedido una subvención nominal a la cátedra UNESCO para, en colaboración con las comunidades de lenguas minoritarias, desarrollar labores de asesoramiento lingüístico, mejorar la preparación del profesorado de educación multilingüe y promover una actitud favorable hacia las lenguas minoritarias. En colaboración con UNESCO Etxea para traducir al euskera y editar el Resumen Ejecutivo del Informe de Desarrollo Humano 2014.*

3. Hizkunztei buruzko nazioarteko harremanak:

*3. relaciones internacionales sobre lenguas:*

3.a. NPLD Network to Promote Linguistic Diversity (Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea) Europako sarearen bilera guztietan parte hartu da, bai Zuzendaritza Batzordean (Steering Committee), bai Batzar Orokorrean (General Assembly), bai Think Tank-ean (hizkuntza-aniztasunaren gainean gogoeta egiteko taldea).

*3.a. Se ha participado en todas las reuniones de la red europea NPLD Network to Promote Linguistic Diversity (Red para la Promoción de la Diversidad Lingüística), tanto de la Junta Directiva (Steering Committee), como de la Asamblea General (General Assembly) y del Think Tank (grupo de reflexión en torno a la diversidad lingüística).*

Horrez gain, NPLDk antolatutako beste jarduera batzuetan ere egon da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza:

- Urtarrilean, Cardiff-en, IKTen inguruko mintegi batean Eusko Jaurlaritzaren itzulpen automatikoaren sistema galestarrei aurkeztuz.
- Ekainean, Berlin-en, NPLDko beste kide batzuekin batera, METANETekin, IKTen inguruan, izandako bilera batean parte hartuz.

*Además, la Viceconsejería de Política Lingüística también ha tomado parte en otras actividades organizadas por la NPLD:*

- *En enero, en un seminario sobre TICs presentando el traductor automático del Gobierno Vasco a los galeses.*
- *En junio, en Berlín, participando en una reunión con METANET sobre las TICs.*

3.b.1. Eusko Jaurlaritzaren eta Txileko Gobernuko CONADIren arteko lankidetza-hitzarmena sinatu da, Txileren eta Euskadiren arteko lankidetza teknikoa indartzeko, hizkuntza-politika, hezkuntza eta kultura alorrean.

*3.b.1. Se ha firmado un acuerdo de colaboración entre el Gobierno Vasco y la CONADI del Gobierno de Chile, con el propósito de estrechar los vínculos de cooperación técnica para la mejora en materia de política lingüística, educativa y cultural de Chile y de Euskadi.*

3.b.2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena hizkuntza-lankidetzaren arloan. Hitzarmen honen xedea da lankidetza-esparru bat formalizatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren –Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren bidez– eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artean, hizkuntza-lankidetzaren arloan estrategia-ildo bateratuak zehazteko eta, ondoren, hizkuntza-lankidetzako ekimen, ekintza eta proiektuak gauzatzeko Hegoaldeko herrialde txiroetako gutxiengoen hizkuntzak babestu eta sustatzearen arloan.

*3.b.2. Acuerdo marco de colaboración entre la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de cooperación lingüística. El presente Acuerdo Marco tiene como objeto formalizar un marco de colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, y la Agencia Vasca de Cooperación de Cooperación para el Desarrollo para definir líneas estratégicas conjuntas en materia de cooperación lingüística y, posteriormente, llevar a cabo iniciativas, acciones y proyectos en materia de cooperación lingüística, en el ámbito de la protección y fomento de lenguas minoritarias en los países empobrecidos del Sur.*

c). Eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunaren jarraipenari dagokionez, 2014ko urriaren 7an informazioa osatzeko bilera egin zen, Bilbon, Adituen Batzordeko kideekin.

*c). En cuanto al seguimiento de la Carta Europea de las lenguas minoritarias, el 7 de octubre de 2014 se realizó una reunión en Bilbao con los miembros de la Comisión de Expertos, y en ella se completó la información.*

4. Kataluniako Generalitatearekin, Iles Balearseko Gobernuarekin eta Galiziako Xuntarekin sinatutako lankidetza akordioen jarraipenari dagokionez, euskara, galegoa eta katalana ikasteko baliabideen mapa osatu eta datuak sarean jartzeko aplikazioa garatu da.

- Galiziako Xuntarekin lankidetzan, Xosé María Díaz Castro idazlearen Nimbos (Argi-koroak) izeneko olerki-liburua argitaratu da elkarlanean, euskara-galiziera argitalpen elebidunean.

*4. En el marco de los protocolos de colaboración firmados con la Generalitat de Cataluña, el Gobierno de las Islas Baleares y la Xunta de Galicia, en 2014 se ha completado un mapa de recursos para aprender euskera, gallego y catalán, y se ha desarrollado un aplicación para poner esos datos en la red.*

- *En colaboración con la Xunta de Galicia, se ha publicado una edición bilingüe euskera-gallego del libro de poemas Nimbos (Argi-koroak), del escritor Xosé María Díaz Castro.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4715 HEZKUNTZA SISTEMAREN EUSKALDUNTZEA | *4715 EUSKALDUNIZACIÓN DEL SISTEMA EDUCATIVO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA | *06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA* |
| HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE INNOVACIÓN EDUCATIVA* |

## HELBURUA

1. IRALE PROGRAMA: IRAKASLEAK ALFABETATU EDO EUSKALDUNTZEA
2. EIMA PROGRAMA: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA DIDAKTIKOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK
3. HGA PROGRAMA: HIZKUNTZAZKO GAITASUN AGIRIAK (EGA, HE1, HE2, HLEA) (matrikula-kopurua)
4. ESKOLA-EREMUAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA (NOLEGA)

## *OBJETIVO*

1. *PROGRAMA IRALE: CAPACIDAD IDIOMÁTICA DEL PROFESORADO*
2. *PROGRAMA EIMA: INCENTIVACIÓN A LA ELABORACIÓN DE MATERIAL DIDÁCTICO EN EUSKERA*
3. *PROGRAMA HGA: CERTIFICADOS DE COMPETENCIA IDIOMÁTICA (EGA, PL1, PL2, HLEA) (n. matrículas)*
4. *PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO ESCOLAR (NOLEGA)*

## BETETZE MAILA

### 1. IRALE PROGRAMA: IRAKASLEAK ALFABETATU EDO EUSKALDUNTZEA

IRALE programa ondoko alorretan aritu da:

a) Irakastorduetatik kanpoko trebakuntza-ikastaroak (IRALE):

- 146 ikasketari 2014ko udan.
- 1.238 ikasketari 2014/15 ikasturtean (2015eko urtarrilaren 19ra arte).

b) Irakastordu barruko trebakuntza-ikastaroak:

2014ko urtarriletik ekainera:

- 419 postu, ikastetxe publikoetako irakasleentzako.
- 69 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako.

2014ko irailetik abendura:

- 329 postu, herri-ikastetxeetako irakasleentzako.
- 42 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako.

c) Irakaskuntza-elkarte baimenduen kopurua:

- 2014ko urtarriletik ekainera, 98.
- 2014ko irailetik abendura, 78.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. PROGRAMA IRALE: CAPACIDAD IDIOMÁTICA DEL PROFESORADO*

*El Programa IRALE ha actuado en los siguientes ámbitos:*

*a) Cursos de capacitación fuera del horario lectivo (IRALE):*

- *146 Cursillistas en verano 2014.*
- *1.238 Cursillistas durante el curso 2014/15 (hasta el 19 de enero de 2015).*

*b)Cursos de capacitación dentro del horario lectivo:*

*Cursos entre enero y junio de 2014:*

- *419 plazas para profesores de centros públicos.*
- *69 plazas para profesores de centros privados.*

*Cursos entre septiembre y diciembre de 2014:*

- *329 plazas para profesores de centros públicos.*
- *42 plazas para profesores de centros privados.*

*c) Número de asociaciones de enseñanza autorizadas:*

- *de enero a junio de 2014: 98.*
- *de septiembre a diciembre de 2014: 78*

**2. EIMA PROGRAMA: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA DIDAKTIKOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK**

EIMA programa ondoko alorretan aritu da:

• Euskarazko ikasmaterialgintzarako laguntza-deialdiak. Aurten hiru (3) deialdi egin dira. Honako hauek, hain zuzen ere:

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Unibertsitate aurreko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizioari zuzendutako diru-laguntzetara biltzekoa deia egiten duena (EIMA 1).

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0).

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortzeko eta egokitzeko laguntzetara egiten duena (EIMA 4).

2014. urtean diru-laguntzak jaso dituzten unitate-kopuruak honako hauek izan dira:

• EIMA 1: 117 ikasmaterial inprimatu diruz lagundu da.

• EIMA 2.0: 11 ikasmaterial digitali dagozkion egitasmoak diruz lagundu dira.

• EIMA 4: 33 ikasmateriali dagozkion egitasmoak diruz lagundu dira.

***2. PROGRAMA EIMA: INCENTIVACIÓN A LA ELABORACIÓN DE MATERIAL DIDÁCTICO EN EUSKERA***

*El programa EIMA ha actuado en los siguientes ámbitos:*

*• Subvención para la producción de material didáctico en euskera. En el ejercicio objeto de evaluación se han publicado tres (3) convocatorias de subvención. A saber:*

*ORDEN, de 30 de julio de 2014, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan subvenciones dirigidas a la edición de materiales escolares de niveles no universitarios impresos en euskera (EIMA 1).*

*ORDEN, de 30 de julio de 2014, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan ayudas para la producción de materiales educativos digitales en euskera de niveles no universitarios (EIMA 2.0).*

*ORDEN, de 30 de julio de 2014, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan subvenciones para la creación y adecuación de materiales escolares en euskera para niveles no universitarios (EIMA 4).*

*El volumen de unidades objeto de subvención durante el año 2014 ha sido:*

*• EIMA 1: 117 materiales escolares impresos subvencionados.*

*• EIMA 2.0: 11 proyectos de materiales digitales educativos subvencionados.*

*• EIMA 4: 33 proyectos de materiales digitales educativos subvencionados.*

**3. HGA PROGRAMA: HIZKUNTZAZKO GAITASUN AGIRIAK (EGA, HE1, HE2, HLEA) (matrikula-kopurua)**

a) EGA azterketa egitera 11.298 pertsona aurkeztu dira, guztira, 2014an, urte horretako bi deialdietan (lehen deialdian 8.039 eta bigarrenean 3.259).

b) Irakasleen Hizkuntza Eskakizunak: HE1eko deialdi orokorrean 253 matrikulatu ziren; eta IRALEren bidez liberaturiko irakasleentzako deialdi itxian, berriz, 41 matrikula egin ziren. HE2ri dagokionez, berriz, honako datu hauek daude: deialdi orokorrerako 296 lagunek eman zuten izena eta IRALEko deialdi itxian 128 matrikula egin ziren. HLEAn, azkenik 66 deialdi orokorrean eta 2 deialdi itxian.

Azkenik, irraileko deialdi itxian 15 lagun aurkeztu dira HE1ean, 56 HE2an eta 1 HLEAn. Guztira 858 azterketari izan dira.

***3. PROGRAMA HGA: CERTIFICADOS DE COMPETENCIA IDIOMÁTICA (EGA, PL1, PL2, HLEA) (n. matrículas)***

*a) En 2014 se presentaron un total de 11.298 personas al examen de EGA en sus dos convocatorias (8.039 en la primera convocatoria y 3.259 en la segunda).*

*b) Perfiles Lingüísticos del profesorado. En la convocatoria general para el Perfil Lingüístico 1 se matricularon 253 personas; en la convocatoria restringida para el profesorado liberado a través de IRALE se realizaron 41 matrículas. En cuanto al PL2, las cifras son las siguientes: matriculados en la convocatoria general 296; en la convocatoria restringida de IRALE se realizaron 128 matrículas. Por lo que respecta al HLEA, se matricularon 66 personas en la convocatoria general más 2 en la restringida.*

*En la convocatoria restringida de septiembre se han presentado 15 personas a PL1, 56 a PL2 y 1 en HLEA. En total ha habido 858 examinandos.*

## 4. ESKOLA-EREMUAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA (NOLEGA)

NOLEGA / ULIBARRI programa ondoko alorretan aritu da:

Eskola-eremuko euskalduntzearen eta normalkuntzaren sustapen berezia jarduera hauen bidez bultzatu da:

a) Euskal Girotze Barnetegiak. Sailak bost euskal girotze barnetegi finantzatzen ditu. Barnetegiok 2013-2014 ikasturtean zehar, 4 eguneko egonaldiak eskaini dizkie hainbat ikasle-gela osorik, euskara ikastearen indargarri gisa:

Ikasle-kopurua:

- ALKIZA:708
- LEMOIZ:713
- BARRIA:649
- ELGOIBAR:697
- SEGURA: 672

GUZTIRA: 3.439

b) Euskara eskola-jardueretan bultzatzeari dagokionez, 2013-14 ikasturtean deialdi bakarra egin da, ikastetxeek hainbat alorretan egiten zituzten jarduerak arautzeko. Bertan honako ekintza hauei sustatzeari ekin diote: antzerkia, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza, eskola-irratigintza, Urruzunotarrak gehituz programa, Ikastetxeen arteko trukeak (IKABIL), euskal girotze-egonaldiak (EGE), ikasgelaz kanpoko ekintzak (IKE), guzti hauek ohi bezala, baina guztiak deialdi bakarrean.

c) Hitzarmenen bidez bi programa bideratzen dira: Idazleak ikastetxeetara eta Ikas2deak programa. Programa hauen helburuak Ikasleen literatura-zaletasuna sustatzea eta euskal giza-ereduak eskolara hurbiltzea dira.

Hona jarduera horietan aritu diren ikasleen kopurua:

Ikasle-kopurua:

- Idazleak ikastetxeetan (EIE) 14.680
- Ikas2deak 4.279

d) ULIBARRI Hizkuntza-normalkuntzako proiektuak:

16.834 irakaslek eta 180.213 ikaslek hartu du parte hizkuntza-normalkuntzako programetan.

## *4. PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO ESCOLAR (NOLEGA)*

*Programa NOLEGA / ULIBARRI*

*La promoción específica de la euskaldunización y normalización del uso del euskera en el ámbito escolar se ha impulsado a través de las siguientes actividades:*

*a) Centros de Afianzamiento Idiomático. Los cinco Centros de Afianzamiento Idiomático cuyo sostenimiento viene financiando el Departamento han ofrecido durante 2013-2014 a aulas enteras de alumnos y alumnas estancias de 4 días como refuerzo a su proceso de aprendizaje del euskera:*

*N. Alumnos/as:*

- *ALKIZA:708*
- *LEMOIZ:713*
- *BARRIA:649*
- *ELGOIBAR:697*
- *SEGURA: 672*

*TOTAL:3.439*

*b) En el área de las actividades de fomento del euskera en el ámbito escolar durante el curso 2013-14 se ha llevado a cabo diversas actividades convocadas en una única convocatoria que ha regulado actividades tales como fomento del teatro, versolarismo, canto, narrativa, radio escolar en euskera, el programa Urruzunotarrak gehituz, Intercambios escolares (IKABIL), estancias de afianzamiento (EGE), convocatoria de actividades extraacadémicas (IKE), todas estas como ya se ha dicho en convocatoria única.*

*c) Dos programas se llevan a cabo por medio de convenios: Idazleak ikastetxeetara y Ikas2deak. Los objetivos de estos programas son impulsar la afición a la lectura, literatura y acercar modelos sociales a la escuela.*

*El grado de participación escolar en dichas actividades ha sido el siguiente:*

*N. alumnos/as*

- *Idazleak ikastetxeetara (EIE) 14.680*
- *Ikas2deak 4.279*

*d) Proyectos de Normalización Lingüística ULIBARRI:*

*En los programas de normalización lingüística han participado 16.834 profesores/as y 180.213 alumnos/as.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 5412 IKERKETA | *5412 INVESTIGACIÓN* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA | *06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA* |
| ZIENTZIA POLITIKARAKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE POLÍTICA CIENTÍFICA* |

## HELBURUA

1. I+G+b-ko GIZA BALIABIDEAK SUSTATZEA
2. IKERKETA SUSTATZEA
3. IKERKETA-AZPIEGITURAK HANDITZEA
4. EUSKAL ZIENTZIA-SISTEMAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA ERAKUNDE HORIEKIN HITZARMENAK SINATZEA

## *OBJETIVO*

*1. POTENCIACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EN I+D+i*

*2. PROMOCIÓN DE LA ACTIVIDAD INVESTIGADORA*

*3. AMPLIACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS DE INVESTIGACIÓN*

*4. SUBVENCIONES Y CONVENIOS DE COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES DEL SISTEMA DE CIENCIA VASCO*

## BETETZE MAILA

### 1. I+G+b-ko GIZA BALIABIDEAK SUSTATZEA

2014ko ekitaldian zehar zenbait programa bultzatu dira ikerketa-jarduerako giza-baliabideen prestakuntzaren kopurua eta kalitatea sustatzeko, ondorengo jardueretan konkretatu direnak:

a) Ikertzaileak prestatzeko laguntzak:

- Doktore ez direnen laguntzak:

Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programaren laguntzek, doktoreak ez diren ikertzaileek doktorego-tesia egitera bideratutako ikerketa finantzatzea dute helburu. Deialdiaren bidez, laguntza Berriak emango dira, eta 2013-2014 ikasturterako emandakoak berrituko.

2014-2015eko deialdia. 2014ko uztailak 1eko Agindua.

Doktoretza aurreko bekak berriak EAEn (A modalitatea), Espainian (B modalitatea) eta atzerrian (I modalitatea).

Doktoretza beka aurreko berriztapenak:

-EAEn (A eta AE modalitateak)

-Espainian (B eta AE modalitateak)

-Atzerrian (C eta AK modalitatea).

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. POTENCIACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EN I+D+i*

*A lo largo del ejercicio 2014 se han impulsado varios programas para la potenciación del número y de la calidad y formación de los recursos humanos dedicados a la investigación, que se han concretado en las siguientes actuaciones:*

*a) Becas de formación de Investigadores:*

*- Ayudas predoctorales*

*Las ayudas del Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador no Doctor están destinadas a la financiación de la investigación dirigida a la realización de una tesis doctoral por parte del personal investigador no doctor. La convocatoria incluye tanto la concesión de Nuevas ayudas como la renovación de las concedidas para el curso 2013-2014.*

*Convocatoria 2014-2015. Orden de 1 de julio de 2014*

*Becas Predoctorales nuevas en la CAPV (modalidad A), España (modalidad B) y extranjero (modalidad I).*

*Renovación de becas Predoctorales en:*

*-CAPV (modalidades A y AE)*

*-España (modalidad B y AE)*

*-Extranjero (modalidades C y AK).*

Eskaera berrien kopurua: 466

Berriz ematen direnak: 293

Bekak guztira: 408

Dauden 115 beka berrietatik 111 A modalitatekoak dira, 3 Bkoak eta 1 Ikoak. Dauden 293 berriztapenetatik 284 A, AE eta B modalitatekoak dira eta 9 AK eta C modalitatekoak.

Horrela, 408 (115 beka berri eta 293 berriztapen) dirulaguntza eman dira. 2014. urterako zegoen helburua 403 dirulaguntza ziren (100 beka berri eta 303 berriztapen ziren).

Halaber, doktoretza lortzeko 48 dirulaguntza gehigarri eman dira 2014ko azaroaren 24ra bitartean, laguntzaren aldian doktoretza titulua lortzeagatik.

b) Ikertzaileen hobekuntzarako laguntzak.

- Doktoretza ondoko bekak.

Deialdiaren helburua EAEko ezarpen-zentroetan hobekuntza gauzatzen ari diren eta denbora baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktoreentzako laguntzak ematea da, 2014-2015 ikasturterako. Deialdian, beka berriak ematea jasota dago, bai eta 2013-2014 ikasturtean emandakoak berritzea ere.

2014-2015 ikasturtea. 2014ko ekainaren 10eko agindua (ekainaren 12ko EHAA).

Eskaera berrien kopurua: 89

Beka berriak: 26

Berriz ematen direnak: 45

Bekak guztira: 71

Horrela, 71 beka eman dira (26 berri eta 45 berriztapen). 2014. urterako zegoen helburua baino 71 beka ziren (25 berri eta 46 berriztapen).

c) Atzerrian espezializazio ikasketak egiteko bekak, EAErako interesgarri diren gaietan.

Agindu honen xedea unibertsitateko goi-mailako tituludunentzat atzerrian EAErako interesgarriak diren gaietako master ofiziala lortzeko espezializazio-ikasketak egitea da, 2014/15 ikasturtean.

Deialdi hau, jatorrizko eskaeran, masterra bi urtetarako izango zela 2013-2014 deialdiko onuradun aktiboentzat egon da zuzenduta, besterik ez.

2014-2015 ikasturterako bekak:

Deialdia: 2014ko urriaren 28ko agindua (2014ko azaroaren 4ko EHAA).

Eskaera berrien kopurua: 0

Beka berriak: 0

Berriz ematen direnak: 7

Bekarioak guztira: 7

*N. de solicitudes nuevas: 466*

*Renovaciones: 293*

*Total Becas: 408*

*De los 115 becarios nuevos en activo, 111 son beneficiarios de la modalidad A, 3 de la modalidad B y 1 de la modalidad I. De los 293 renovantes 284 son de la modalidad A, AE y B y 9 de las modalidades AK y C.*

*Por lo tanto, se han concedido 408 becas (115 nuevas y 293 renovaciones). El objetivo para el año 2014 era 403 becas (100 nuevas y 303 renovaciones).*

*Asimismo, y hasta el 24 de noviembre de 2014, se han otorgado 48 ayudas adicionales por la obtención del doctorado durante el periodo de la ayuda.*

*b) Becas de perfeccionamiento de Investigadores.*

*- Becas Posdoctorales.*

*Las ayudas están destinadas al perfeccionamiento del personal investigador doctor en centros de aplicación en la CAPV y desplazamiento temporal en el extranjero correspondientes al curso 2014-2015. La convocatoria incluye tanto la concesión de nuevas ayudas como la renovación de las concedidas para el curso 2013-2014.*

*Curso 2014-2015. Orden de 10 de junio de 2014 (BOPV de 12 de junio).*

*N. de solicitudes nuevas: 89*

*Nuevas concesiones: 26*

*Renovaciones: 45*

*Total Becas: 71*

*Por lo tanto, se han concedido 71 becas (26 nuevas y 45 renovaciones). El objetivo para el año 2014 era 71 becas (25 nuevas y 46 renovaciones).*

*c) Becas de estudios de especialización en el extranjero en temas de interés para la CAPV.*

*Las ayudas tienen por objeto realizar estudios de especialización en el extranjero conducentes a obtener el título de master oficial en temas de interés para la CAPV para el curso 2014-2015.*

*Convocatoria dirigida exclusivamente a aquellos becarios en activo de la convocatoria 2013-2014 que en su solicitud inicial indicaron que el master que iban a realizar era de dos años de duración.*

*Becas curso 2014-2015:*

*Convocatoria: Orden de 28 de octubre de 2014 (BOPV de 4 de noviembre de 2014).*

*N. de solicitudes nuevas: 0*

*Nuevas concesiones: 0*

*Renovaciones: 7*

*Total Becarios : 7*

Beraz, baldintzak betetzen zituzten berriztatze eskaera guztiei eman zaie beka.

d) Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak. Doktoretza-aurreko egonaldiak.

Egonaldi horien helburua izango da prestatzen ari diren ikertzaileak zientzia- eta teknika-ikerketan hobeto prestatzea, eta horretarako laborategi edo ikerketa-zentroetan ikerketa-lanak egitea, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, bibliografia- eta ikerketa-fondoetan kontsultatzea eta beste edozein ikerketa jarduera egitea esku artean duen tesi-proiektuaren testuinguruan, ikertzailearen zientzia- eta teknika-prestakuntza hobetzeko eta tesiaren garapena bultzatzeko.

2014ko Deialdia

2014ko Deialdia (aurretik deitutakoa), Agindua: 2013/11/26, 2013/11/28an argitaratuta.

Diru dotazioa: 200.000 euro.

Eskaerak: 134

Emandak.: 71

Ezeztat.: 63

Zenbatekoa; 199.950 €

Diru-laguntzak Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2014/02/5eko ebazpenaren bitartez eman ziren.

Abiapuntu ohikoenak dira EEBB, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania eta Eskandinavia. Helburu gisa finkatutako adierazlea 2014rako. 65 dirulaguntza ematea zen. Azkenean, 71 eman dira.

e) Pertsonal ikertzailearen mugikortasun programak.

Deialdia honen helburua da: dedikazio esklusiboarekin, ikerketa-zentroetan egonaldiak egitea; batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzeko, eta, bestetik, ikertzaile-taldeen lehiakortasuna eta gaitasunak hobetzeko.

2014ko Deialdia

2014/04/8ko Agindua, 2014/04/22an argitaratua.

Diru dotazioa: 120.000 €.

Eskaerak: 26

Emandak.: 15

Ezeztat.: 11

Zenbatekoa; 118.478 €

Diru-laguntzak 2014/07/21eko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpenaren bitartez eman ziren.

*Por lo tanto, se han concedido beca a todas las solicitudes de renovación que cumplían requisitos.*

*d) Estancias en centros distintos al de aplicación del Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador. Estancias predoctorales.*

*La finalidad de las estancias es la mejora de la formación en investigación científica y técnica del personal investigador en formación mediante la realización de actividades de investigación, el aprendizaje de nuevas técnicas de aplicación al proyecto de investigación, la consulta de fondos bibliográficos y documentales, y cualquier otra actividad de investigación que, en el contexto del proyecto de tesis en ejecución, redunde en beneficio de su formación científica y técnica e impulse el desarrollo de su tesis.*

*Convocatoria 2014*

*Convocatoria 2014 (anticipada), Orden de 26/11/2013, publicada el 28/11/2013.*

*Dotación económica: 200.000 euros.*

*Solicitudes: 134*

*Conc.: 71*

*Deneg.: 63*

*Importe: 199.950 €*

*Las ayudas se concedieron por resolución de 5/02/2014 de la Viceconsejera de Universidades e Investigación.*

*Los destinos principales son EEUU, Reino Unido, Francia, Alemania y Escandinavia. El objetivo señalado para 2014 era la concesión de 65 ayudas. Finalmente se han concedido 71.*

*e) Programa de movilidad del personal Investigador.*

*El objeto de estas ayudas es la realización, con dedicación exclusiva, de estancias en centros de investigación, con el fin de impulsar la movilidad geográfica del profesorado universitario e investigadores de los organismos y centros de I+D+i, y mejorar sus capacidades y la competitividad de los grupos de investigación.*

*Convocatoria 2014*

*Orden de 8/04/2014, publicada el 22/04/2014.*

*Dotación económica: 120.000 €.*

*Solicitudes: 26*

*Conc.: 15*

*Deneg.: 11*

*Importe: 118.478 €*

*Las ayudas se concedieron por resolución de 21/07/2014 de la Viceconsejera de Universidades e Investigación.*

Bi kasutan, 6.3 artikulua (betebeharrak) ez zutelako bete ezeztatu ziren, beste bi kasutan 6.1 artikulua (egonaldien ezaugarriak) ez betetzeagatik, kasu batean 10. artikulua (akatsak zuzentzea) ez zuelako bete, eta beste sei kasutan aurrekontu-kreditoa agortzeagatik.

*Las denegadas lo fueron por incumplimiento del Art. 6.3. (Requisitos) en dos casos, del artículo 6.1 (Características de las estancias) en dos casos, del artículo 10 (Subsanación) en un caso; y en seis casos por agotamiento del crédito presupuestario.*

Emandako dirulaguntzen kopurua, 19, bete egiten du aurretik ezarritakoa, 15 hain zuzen.

*El número de ayudas concedidas, 19, cumple con el indicador fijado, 15.*

f) Basque Visiting Fellow programa.

*f) Programa Basque Visiting Fellow*

Programa honen bidez ikerketako beka bat ematen da doktore bati gehienez urte bateko egonaldia egiteko hauetako unibertsitate batean: Oxford-eko Unibertsitatea, Glasgoweko Unibertsitatea eta Cambridgeko Unibertsitatea. Bekadunak gauzatutako proiektu zehatzari buruzko mintegi bat antolatu behar du ikastegi horretan.

*Este programa concede una beca de investigación para doctores para realizar una estancia de duración máxima de un año en uno de los siguientes destinos: Universidad de Oxford, Universidad de Glasgow y Universidad de Cambridge. La estancia incluye la organización de un seminario sobre el proyecto concreto desarrollado por el/la beneficiario.*

g) Euskadi Ikerketa Saria.

*g) Premio Euskadi de Investigación.*

Ikerkuntzarako Euskadi Sarietarako aukera izan dezake Euskadin jaio diren ikertzaile orok, bere lan-ibiliaren zati handi bat Euskadin egina badu, edo bere lanak Euskadin garrantzizko eragin positiboa izan badu.

*Podrán optar al Premio Euskadi de Investigación los investigadores y las investigadoras que hayan nacido en Euskadi o que hayan desarrollado una parte importante de su carrera en Euskadi o cuyo trabajo haya ejercido una influencia positiva destacada para Euskadi.*

2013. Edizioa

*Edición 2013*

2013/11/26ko Agindua, 2013/12/31an argitaratuta EHAAn. Diru dotazioa: 40.000 €.

*Orden de 26/11/2013, publicada en el BOPV el 31/12/2013. Dotación económica: 40.000 €.*

Epaimahaiaren konposaketa: 2014/04/7ko Agindua, 2014/04/14an argitaratuta.

*Composición del Jurado: Orden de 7/04/2014, publicada el 14/04/2014.*

Hautaketa: 2014/04/28. Adjudikazio Agindua: 2014/04/28, 2014/05/16an argitaratuta.

*Fallo: 28/04/2014. Orden de adjudicación de 28/04/2014, publicada el 16/05/2014.*

Sariduna: Gregorio Monreal Zía jauna. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide eta Instituzioen Historiaren Katedradun Emeritoa.

*Premiado: D. Gregorio Monreal Zía. Catedrático Emérito de Historia del Derecho y de las Instituciones de la Universidad Pública de Navarra.*

Saria emateko ekitaldia: 2014/05/12

*Acto público de entrega del premio: 12/05/2014.*

2014. Edizioa

*Edición 2014*

Agindua 2014/11/4, 2014/11/11an argitaratuta. Diru dotazioa: 40.000,00 euro.

*Orden 4/11/2014, publicada el 11/11/2014. Dotación económica: 40.000,00 euros.*

## 2. IKERKETA SUSTATZEA

## *2. PROMOCIÓN DE LA ACTIVIDAD INVESTIGADORA*

2014ko ekitaldian zehar zenbait programa bultzatu dira ikerketa-jarduera sustatzeko, ondorengo jardueretan konkretatu direnak:

*A lo largo del ejercicio 2014 se han impulsado varios programas destinadas al fomento de la actividad investigadora que se han concretado en las siguientes actuaciones:*

a) Oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak eta elkarlanekoak egiteko laguntzak emateko deialdia.

*a) Financiación de Proyectos de Investigación Básica y/o Aplicada y Proyectos en Cooperación.*

Deialdi honek ezagutzaren garapenari lagundu egiten dio, baita erakunde ezberdinetako taldeen arteko koordinazioari ere. Era berean, beste deialdi batzuekin koordinatuta ere badago; hain zuzen ere, enpresekin lankidetzan teknologia berritzailea garatzera bideratutakoekin, alde batetik, eta bikaintasunezko ikerketa-unitateen eta ikerketa-taldeen baliabide materialak, giza baliabideak, antolamendua eta funtzionamendua sustatzea xede dutenekin, bestetik.

*Esta convocatoria en la que se favorece el desarrollo de conocimiento, así como la coordinación entre grupos de entidades diferentes, a la vez que se articula de forma coordinada con otras convocatorias dirigidas por un lado al desarrollo tecnológico innovador en colaboración con empresas, a la potenciación de los recursos materiales y humanos y a la organización y funcionamiento de los grupos de investigación y unidades de investigación de excelencia.*

12/13/14 deialdia (PI2012)

*Convocatoria (PI2012) 12/13/14*

2011/07/5eko Agindua, 2011/07/26an argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 240.000 €.

*Orden de 5/07/2011, publicada el 26/07/2011. Dotación económica para el año 2014: 240.000 €.*

Deialdi honetan 20 proiektu finantzatu dira: 3 proiektu unibertsitate pribatuei, Ikerketa Kooperatibo Zentroei 8 proiektu, 7 teknologia-zentroei eta 2 BERC motakoei.

*Se financian 20 proyectos, de ellos 3 a Universidades privadas, 8 a centros de investigación cooperativa, 7 a Centros Tecnológicos y 2 a centros BERC.*

Guztizkoan proiektu bat elkarlanean egiten da bi entitate artean.

*Del total, uno de los proyectos se realiza en colaboración entre dos entidades.*

13/14/15 deialdia (PI2013)

*Convocatoria (PI2013) 13/14/15*

2012/06/12ko Agindua, 2012/07/4an argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 240.000 €.

*Orden de 12/06/2012, publicada el 4/07/2012. Dotación económica para el año 2014: 240.000 €.*

Deialdi honetan 17 proiektu finantzatu dira: 12 proiektu entitate bakarrekoak eta 5 proiektu elkarlanean, bi entitate artean.

*Se financian 17 proyectos de los que, doce son individuales y 5 se realizan en colaboración entre dos entidades.*

Entitate bakarreko proiektuetatik 4 Ikerketa Kooperatibo zentroetakoak dira, 2 Unibertsitate pribatuarenak, 2 Tecnalia Fundaziokoak, 2 CEITkoak eta proiektu bana Deustu Fundazioa eta Azti Fundazioa.

*Los beneficiarios de los proyectos individuales son Centros de Investigación Cooperativa, (4), la Universidad Privada (2), la Fundación Tecnalia (2), CEIT (2), la Fundación Deusto (1) y la Fundación Azti.*

Elkarlanekoak Mondragon Unibertsitatea eta IK4 artean garatzen dira hiru kasutan; Tecnum eta IK4 kasu batean eta Deustu Unibertsitatea eta CEIT beste batean.

*Los proyectos en colaboración corresponde a Mondragon Unibertsitatea e Ik4 (3), Tecnum-Ik4 (1) y Universidad de Deusto-CEIT.*

14/15/16 deialdia (PI2014)

*Convocatoria PI2014 (/14/15/16)*

2013/11/26ko Agindua, 2013/12/11an argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 304.000 €.

*Orden de 26/11/2013, publicada en el BOPV el 11/12/2013. Dotación económica para el año 2014: 304.000 €.*

10 proiektu esleitu ziren; horietatik 3 bigarren modalitatekoak ziren, hots, lankidetza motakoak (bi erakunde desberdin inplikatzen ziren proiektu bakoitzean). Proiektu hauek 152.000 euroko finantziazioa jaso zuten. Guztietan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskolak hartu zuen parte, CIC Biogune, CIC Nanogune eta Deustu Fundazioarekin batera.

*Se concedieron 10 proyectos, de los que 3 eran de la segunda modalidad, es decir de cooperación entre dos entidades. Los proyectos en cooperación se financiaron con un total de 152.000 euros. En estos proyectos participó la Escuela Politécnica superior de Mondragon Unibertsitatea con CIC Biogune, CIC Nanogune y la Fundación Deusto.*

Gainontzeko zazpiek, erakunde bakar batekoak, beste 152.000 euro jaso zuten; haien artean bi 2 CIC (Biogune eta Nanogune), 3 zentro teknologiko (CEIT eta Tecnalia), BERC bat (BCBL) eta Deustuko Unibertsitatea.

*De los otros 7 restantes, de entidad individual, y por un importe total de 152.000 euros, 2 fueron adjudicados a dos CICs (Biogune y Nanogune), 3 a centros tecnológicos (CEIT y Tecnalia), 1 a un BERC (BCBL), y 1 a la Universidad de Deusto.*

Guztira, 2014an indarrean dauden Oinarrizko eta Aplikatutako Ikerkuntza proiektuak 44 dira; finkatu zen helburua, 35 proiektu, baino altuagoa.

*El número de proyectos en activo en el conjunto de convocatorias de Proyectos de Investigación Básica y Aplicada en 2014 es de 44, superior al indicador de objetivos (35).*

b) Unibertsitate-Enpresa ikerketa-proiektuak.

*b) Proyectos de Investigación Universidad-Empresa.*

Deialdi honen xedea diru-laguntzak ematea da ikerketa-proiektuak gauzatzeko, zeinen helburua ezaguera unibertsitatetik enpresetarantz transferitzea izan dadin, aipaturiko enpresen interes arloetan. Aipatutako proiektuak unibertsitateko ikertzaileek burutu behar dituzte enpresen pertsonal parte-hartzearekin; aukeran erakunde laguntzaile-ikertzaileek ere parte hartu ahal izango dute.

*Esta convocatoria apoya la realización de proyectos de investigación cuya finalidad sea transferir conocimiento desde la universidad hacia las empresas, en áreas de interés de dichas empresas. Los proyectos deberán ser desarrollados por el grupo universitario con la participación de personal de la empresa; opcionalmente podrán participar también investigadores de entidades colaboradoras.*

2013ko deialdia (UE 13/14)

*Convocatoria del año 2013 (UE 13/14)*

2012/06/26ko Agindua, 2012/07/9an argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 98.345 €.

*Orden de 26/06/2012, publicada en el BOPV el 9/07/2012. Dotación económica para el año 2014: 98.345 €.*

6 proiektu finantzatu dira, guztiak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikokoak. Proiektu bakoitzean sektore desberdineko enpresa batek hartzen du parte; enpresa hauek zeharka profitatzen dira laguntza hauetaz, ikerketen emaitzak aprobetxatu eta eramaten dituzten jardueretan erabiliz. Denen artean 24.500 euro jartzen dute.

*Se han financiado 6 proyectos que corresponden a la Goi Eskola Politeknikoa de la Mondragon Unibertsitatea. En cada uno de los proyectos participa una empresa de diversos sectores productivos, que son beneficiarias indirectas de estas subvenciones, por la vía del aprovechamiento de los resultados y su incorporación y aplicación a la actividad que desarrollan. Aportaron un total de 24.500 euros.*

2014ko deialdia (UE 14/15)

*Convocatoria del año 2014 (UE 14/15)*

2013/12/3ko Agindua, 2013/12/9an argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 104.902 €.

*Orden de 3/12/2013, publicada en el BOPV el 9/12/2013. Dotación económica para el año 2014: 104.902 €.*

2014ko deialdiaren lehen urtean 4 proiektu finantzatu dira; proiektu hauek Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarenak dira. Produkzio-sistema desberdinetako enpresa batek hartzen du parte proiektu bakoitzean eta, guztien artean, 18.523 euro ematen dituzte.

*En su primera anualidad, se han financiado 4 proyectos, que corresponden a la Goi Eskola Politeknikoa de la Mondragon Unibertsitatea. En cada uno de los proyectos participa una empresa de diversos sectores productivos, que aportan entre todas 18.523 euros como cofinanciación del proyecto.*

Guztira, 2014an indarrean dauden Unibertsitate-Enpresa ikerketa-proiektuak 10 dira; helburu zen adierazlearen parekoa.

*El número de proyectos en activo en el conjunto de convocatorias Proyectos de Investigación Universidad-Empresa en 2014 es de 10, igual al indicador fijado como objetivo.*

c) Euskal unibertsitate-sistemako taldeen ikerketa jarduerari laguntzeko dirulaguntzak.

*b) Ayudas a la actividad de investigación de los Grupos del Sistema Universitario Vasco.*

Agindu honen helburua da ikerkuntza ahalbidetzea eta bultzatzea aldera, eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateetako sail eta unibertsitate-institutuetako taldeek egindako ikerketaren kalitate zientifikoa, eragin soziala eta nazioarteko oihartzuna areagotze aldera.

*El objeto de ayudas es facilitar y fomentar las actividades de investigación, así como aumentar la calidad científica, el impacto social y la visibilidad internacional de la investigación realizada por los grupos de los departamentos e institutos universitarios de las universidades con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

2010-2015 Deialdia

*Convocatoria 2010-2015*

2009/10/21eko Agindua, 2009/11/4ko EHAA. 2010/04/22ko Ebazpena. EHAAn 2010/05/6an argitaratua.

*Orden de 21 de octubre de 2009, BOPV de 4 de noviembre de 2009. Resolución de 22/04/2010, publicada el 6/05/2010.*

2010etik 2015era, 45 talde laguntzen dira urte bakoitzean. Talde hauek "A" motakoak dira (40 UPV/EHUkoak, 4 Deustu Unibertsitatekoak eta 1 Mondragon Unibertsitatekoa).

*Se financian 45 grupos de tipo "A" desde 2010 a 2015, de ellos 40 son de la UPV/EHU, 4 de la Universidad de Deusto y 1 de Mondragon Unibertsitatea.*

2014. urteko diru-laguntzaren %50a ordaindu egiten zaizkie "A" motako taldeei.

*Se abona el 50% de la anualidad 2014 correspondiente a los grupos tipo A.*

2013-2018 Deialdia

*Convocatoria 2013-2018*

2012/07/24ko Agindua, 2012/07/27ko EHAA. 2013/03/13ko Ebazpena.

*Orden de 24 de julio de 2012, BOPV de 27/07/2012.. Resolución de 13/03/2013.*

2013tik 2018ra, "A" motako 77 ikertalde laguntzen dira. Talde honetatik 74 UPV/EHUkoak, bi Deustu Unibertsitatekoak eta bat Mondragon Unibertsitatekoa.

*Se financian 77 grupos de tipo "A" desde 2013 a 2018, de ellos 74 son de la UPV/EHU, 2 de la Universidad de Deusto y 1 de Mondragon Unibertsitatea.*

2013tik 2015era, 123 "B" motako talde laguntzen dira. Horien artean, 102 UPV/EHUkoak dira, 15 Deustu Unibertsitatekoak eta 6 Mondragon Unibertsitatekoak.

*Se financian 123 grupos calificados de tipo "B" desde 2013 a 2015, correspondiendo 102 a la UPV/EHU, 15 a la Universidad de Deusto y 6 a Mondragon Unibertsitatea.*

Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen gaineko jardueraren helburuak bi adierazle ditu proposamenen kalitatea neurtzeko orduan:

*El objetivo de la actuación sobre grupos de investigación del sistema universitario vasco tiene dos indicadores de la calidad de las propuestas:*

a) diruz lagundutako A taldeen ehunekoa diruz lagundutako guztien % 45etik gorakoa izatea.

*a) que el porcentaje de grupos A subvencionados sea superior al 45% del total de los subvencionados.*

b) kanpoan utzitako taldeen ehunekoa % 25etik beherakoa izatea.

*b) que el porcentaje de grupos excluidos sea inferior al 25%.*

2014an, “A” motako 122 talde (2010eko deialdiko 45 talde eta 2013ko 77) eta “B” motako 123 talde finantzatzen dira; beraz lehenengo adierazlea %49,8an geratzen da.

*En el año 2014 se apoyan 122 grupos de tipo “A” (45 de la convocatoria 2010 y 77 de la de 2013) y 123 de tipo “B”; el valor del primer indicador es de un 49,8%.*

2013ko deialdian, onartu ziren 236 eskaeretatik 36 proposamen finantzatu gabe geratu ziren; porrotak % 15,3a hartzen du.

*El porcentaje de grupos excluidos en 2013, 36 propuestas de un total de 236 solicitudes admitidas, representa un 15,3%.*

2014an, 2013. urteko % 50ko kitapena egin da eta 2014ko urtekoaren %50a aurreratu egin da.

*En 2014 se ha liquidado el 50% pendiente de la anualidad 2013 y se ha anticipado el 50% de la anualidad 2014.*

d) Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) lankidetza-esparruan, ikerketa sareak eta teknologiako ikerketa-eta garapen-proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdia.

*d) Convocatoria de ayudas para el desarrollo de Redes de Investigación y Proyectos de Investigación y Desarrollo Tecnológico en el marco de cooperación de la Comunidad de Trabajo de los Pirineos (CTP).*

Zientzia, teknologia eta enpresa arloen baitan dauden eta PLEko eskualdearen garapena sustatzera bideratuta dauden ekintzak abian jartzea da elkartearen helburua, beti ere Pirinioetako eskualdeen eremuan, ekintza horiek Europar Batasuneko funtsen finantziazioa lor dezaketen neurrian, ikerketan bikaintasunez diharduen piriniar eskualde bat sortzeko xedez.

*Su objetivo es favorecer, en el ámbito de las regiones pirenaicas, la puesta en marcha de acciones integradas en materia de Ciencia-Tecnología-Empresa destinadas a promover el desarrollo del territorio de la CTP, que puedan ser susceptibles de financiación por los Fondos Europeos con el propósito de crear una región pirenaica de investigación de excelencia.*

2013ko deialdia (PLE 13/14)

*Convocatoria de 2013 (CTP 13/14)*

2013/06/11ko Agindua, 2013/06/18an argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 60.000 €.

*Orden de 11/06/2013, publicada en el BOPV el 18/06/2013. Dotación económica para el año 2014: 60.000 €.*

PLEn 6 partaidetza programa finantzatu dira; hauetako bi ikerketa eta garapen teknologikoko proiektuak dira eta 16.500 euroko zuzkidura dute. Beste lauak ikerketa-sareak dira eta guztiak UPV/EHUkoak; 8.340 euroko diru-laguntza jaso dute.

*Se han financiado 6 Programas de participación en la CTP; dos proyectos de investigación y desarrollo tecnológico por un importe de 16.500 euros y 4 Redes, todas ellas de grupos de la UPV/EHU, por un importe, éstos, de 8.340 euros.*

Proiektuak, CIC Bioguneri eta, UPV/EHUri dagokie, eta azken honek enpresa batekin burutuko du lana.

*Los proyectos corresponden al CIC Biogune por un lado, y por otro, a la UPV/EHU, que va junto con una empresa.*

Helburu zen adierazlea 4 proiektu laguntzea zen.

*El indicador objetivo de esta actuación era de 4 proyectos subvencionados.*

e) Kongresuak eta bilera zientifikoak antolatzeko dirulaguntzak.

*e) Ayudas para la organización de congresos, y reuniones científicas.*

2014 Deialdia

*Convocatoria 2014*

Lehen seihilekoa. Deialdia aurreratua, 2013/12/17ko Agindua, 2013/12/31n argitaratua. Finantzazioa: 240.000 €.

*1er semestre. Anticipada, Orden de 17/12/2013, publicada el 31/12/2013. Dotación económica: 240.000 €.*

Bigarren seihilekoa. 2014/04/8ko Agindua, 2014/04/22an argitaratua. Finantzazioa: 240.000 €.

*Segundo semestre. Orden de 8/04/2014, publicada el 22/04/2014. Dotación económica: 240.000 €.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren iritziz, ideia eta ezagupen zientifiko eta teknologiko

*Cultura, considera que los congresos y, en otro orden de conocimiento, las reuniones de carácter científico*

aurreratuenak trukatzeko eta zabaltzeko ez ezik, baita Euskadiko zientzia arloaren ikuspegi orokorra izateko ere tresna egokiak dira Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren kongresuak. Horregatik uste du interes handikoa dela Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako jarduerak egiten laguntzea eta, batez ere, horien kalitate zientifikoa eta arrakasta bultzatzea, Espainiako eta atzerriko ospe handiko ikertzaile eta irakasleen partaidetzaren bitartez.

*que se realicen en la Comunidad Autónoma del País Vasco son mecanismos idóneos para promover el intercambio y la difusión de las ideas y de los conocimientos científicos y tecnológicos más avanzados, así como para aumentar la visibilidad global de la Ciencia vasca. Por ello considera de gran interés contribuir a la realización de tales actividades dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, especialmente, potenciar su calidad científica y éxito mediante la participación de personal investigador, nacional y extranjero, de prestigio reconocido.*

| | **1. akta Acta 1** | **2. akta Acta 2** | **Guztira Total** |
|---|---|---|---|
| Eskaerak / Solicitudes | 57 | 59 | 116 |
| Emandakoak / Concedidas | 32 | 43 | 75 |
| Ezeztatuak / Denegadas | 25 | 16 | 41 |

Ukatutakoen arrazoia: 1. art. (Xedea) ez betetzeagatik 27 kasutan eta 14 kasutan deialdiaren kreditua agortzeagatik.

*Las denegadas lo fueron por incumplimiento de: Art. 1. (Objeto) en 27 casos y por agotamiento de crédito en 14 casos.*

Hauxe emandako eskaera-motak:

*La tipología de las concedidas fue la siguiente:*

| | **Kongresuak Congresos** | **Bilerak Reuniones** | **Guztira Total** |
|---|---|---|---|
| Nazioartekoa / Internacional | 9 | 3 | 12 |
| Nazionala / Estatal | 31 | 32 | 63 |
| Guztira / Total | 40 | 35 | 75 |

Emandako diru-laguntzen kopurua, 75, aurretik ezarritakoaren parekoa da.

*El número de ayudas concedidas, 75, coincide con el indicador fijado.*

### 3. IKERKETA-AZPIEGITURAK HANDITZEA

### *3. AMPLIACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS DE INVESTIGACIÓN*

2014. urtearen zehar Zientzia-Teknologia arteko erlazioak bultzatzeko eta ikerketarako gaitasuna hobetzeko hainbat dirulaguntza programa bultzatu dira.

*A lo largo del ejercicio 2014 se han impulsado diferentes programas subvencionales para el fomento de las relaciones Ciencia-Tecnología y de la mejora de las capacidades en investigación.*

a) Zientzia-azpiegiturak eta -ekipamenduak finantzatzea:

*a) Financiación de infraestructuras y equipamiento científico:*

Diru-laguntza mota hauen bitartez 18.001 eta 240.000 euro arteko kostua duen (BEZik gabe) ekipamendu zientifikoko erosketa laguntzen da.

*Esta línea de ayudas subvenciona la compra de equipamiento científico cuyo coste (sin IVA) esté comprendido entre 18.001 y 240.000 euros.*

2013/11/26ko Agindua, 2013/12/5ean argitaratuta EHAAn. 2014. urteko diru zuzkidura: 330.000 €.

*Orden de 26/11/2013, publicada en el BOPV el 5/12/2013. Dotación económica para el año 2014: 330.000 €.*

Guztira 6 ekipamendu finantzatu ziren; haietako bat ekipamendu zientifiko handi bat da, 170.000 euro ingurukoa, CIC motako zentro bati emanda. Ekipamendu hau Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sailak antolatzen duen ETORTEK programak ere finantzatu egin du.

*Se financiaron un total de 6 equipamientos de los cuales 1 es un gran equipamiento científico de coste aproximado a los 170.000 euros a un CIC que fue cofinanciado por el programa ETORTEK del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco.*

Gainontzekoak 90.000 eurotik beherako ekipoak dira; haien artean, BERC zentro bati emana, bigarrena CIC motako zentro bati emandakoa eta beste hiruak zentro teknologikoei.

*El resto son de coste inferior a 90.000 euros, los cuales se han concedido 1 a un Centro BERC, 1 a otro CIC y 3 a centros tecnológicos. Se agotó la dotación y la financiación media fue de a los 60.000 euros.*

Helburu zen adierazlea 8 ekipamendu laguntzea zen.

*El indicador objetivo de esta actuación era de 8 equipos subvencionados.*

b) Basque Excellence Research Centre (BERC)

*b) Basque Excellence Research Centre (BERC)*

2014/07/15eko aginduaren bidez deitu ziren Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian akreditatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berriztapeneko Euskal Sarearen eragileei laguntzeko dirulaguntzak. Diru-laguntzen guztizko zenbatekoa 40 miloi euro da.

*Mediante Orden de 15/07/2014, se convocaron ayudas de apoyo a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación acreditados en la categoría de Centros de Investigación Básica y de Excelencia. La convocatoria estaba dotada con 40 millones de euros.*

Diru-laguntzak Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpenaren bidez eman ziren 2014/09/30ean. Emandako dirulaguntzen laburpena 2014/11/6ko EHAAn argitaratu zen.

*Las ayudas se concedieron por Resolución de 30/09/2014, de la Viceconsejera de Universidades e Investigación. El resumen de las concesiones realizadas se publicó en BOPV el 6/11/2014.*

BERC programa 5414 programako fondoen bidez gauzatzen da. Horregatik, ekintza hau Berriztapen Fondorako egindako memorian sartuta dago.

*El programa BERC se ejecuta con fondos del programa 5414 y por tanto esta actuación está incluida en la memoria elaborada para el Fondo de Innovación.*

Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen (BERC) kategorian akreditatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berriztapeneko Euskal Sarearen bederatzi zentroak aurkeztu ziren deialdira; guztiek diru-laguntzak eskuratzeko gutxienezko puntuazioa, 75 puntu hain zuzen, lortu egin zuten. Horrela, deialdi honetan markaturiko adierazlea burutu zen.

*Se presentaron a la convocatoria los 9 centros de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación pertenecientes a la categoría de Centros de Investigación Básica y Excelencia (BERC). Los nueve obtuvieron la calificación necesaria (75 puntos) para tener derecho a las ayudas, cumpliéndose de esa manera en objetivo señalado para la convocatoria.*

## 4. EUSKAL ZIENTZIA-SISTEMAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA ERAKUNDE HORIEKIN HITZARMENAK SINATZEA

## *4. SUBVENCIONES Y CONVENIOS DE COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES DEL SISTEMA DE CIENCIA VASCO*

Unibertsitate eta zientzia eremuko erakunde desberdinen jarduerako kolaborazioa.

*Colaboración en la actividad de diversas instituciones de ámbito universitario y científico.*

a) Donostia International Physics Center Fundazioarentzako diru-laguntza.

*a) Subvención a la Fundación Internacional "Donostia Internacional Physics Center"*

Ikerketa zentroa da, bikaintasun akademikoa bilatzen duena, eta funtsezko nortasun-ezaugarritzat du fisikaren alorreko ikertzaileentzako elkargunea izatea. Donostian dago, Ibaetako campusean.

*El DIPC es un centro de investigación de excelencia académica, que tiene como primer rasgo de identidad, el ser un lugar de encuentro para todos los investigadores del campo de la física en la ciudad de Donostia, en el campus universitario de Ibaeta.*

Mantentzen laguntzeko, 792.000 euroko diru-laguntza eman zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014/01/14ko aginduaren bitartez, Hezkuntza Saila, Fundazioko kidea baita eta Fundazioaren Patronatuan parte hartzen duelako.

*Por Orden de 14/01/2014 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, se le ha concedido una subvención de 792.000€ para contribuir a su mantenimiento, ya que el Departamento de Educación es miembro fundador y se encuentra representado en el Patronato de la Fundación.*

b) Elhuyar Fundazioarentzako diru-laguntza.

*b) Subvención a la Fundación Elhuyar*

Fundazioaren helburu dira zientziaren eta teknologiaren alorreko zabalkundea, sustapena, ikerketa, garapen- eta berrikuntza- jarduerak ezarri eta sustatzea; orobat, euskara bere osotasunean garatzeko prozesuan (hala normalizazio-prozesuetan, nola estandarizaziokoetan) aholkularitza, zabalkunde, ikerketa, garapen eta berrikuntza zereginak egin eta bultzatzea, euskal gizarte eleaniztunaren testuinguruaren barruan.

*La Fundación Elhuyar tiene entre sus fines establecer y promover actividades de divulgación, promoción, investigación, desarrollo y renovación en el área de la ciencia y la tecnología, así como realizar e impulsar funciones de asesoramiento, divulgación, investigación, desarrollo e innovación en el proceso de desarrollo pleno del euskera en un contexto de una sociedad vasca plurilingüe.*

Urte hasieran Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Elhuyar Fundazioak proposatutako lan-programaren jarduera edo proiektuak urteko diru-laguntza emateko aukeratuko ditu eta jarduera bakoitzeko finantziazioa

*A principios de año el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura elegirá las actividades o proyectos que desea subvencionar entre los propuestos en el plan de trabajo de la Fundación Elhuyar, y especificará la financiación para cada uno de los*

adieraziko du.

*proyectos o actividades elegidos.*

Dirulaguntza aurreko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin 2009ko martxoaren 26an sinatutako hitzarmenean dago araututa dago. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014/05/27ko aginduaren bitartez, 168.000 euroko diru-laguntza eman zaio.

*La subvención está regulada por un convenio con el anterior Departamento de Educación, Universidades e Investigación que se firmó el 26 de marzo de 2009. Por Orden de 27/05/2014 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, se le ha concedido una subvención de 168.000 €.*

2014an jarduera hauek finantzatu dira:

*En el 2014 se financian las siguientes actividades:*

Zeharrola, gazteentzako ikerketa-zentroa, 103.000 €

*Zeharrola, centro de investigación para jóvenes, 103.000 €*

Teknopolis telebista-saioa, 60.000 €

*Programa de televisión Teknopolis 60.000 €*

“Challenges of Science Education “ izeneko ikastaroa, 5.000 €

*Curso denominado “Challenges of Science Education 5.000 €*

c) Eusko Ikaskuntzari dirulaguntza.

*c) Subvención a Eusko Ikaskuntza*

24.000 euroko 2014ko dirulaguntza nominalak Eusko Ikaskuntzaren ikerketa-jarduerei lotutako gastu desberdinak finantzatzea du helburu, ondorengoak esate baterako: Ginebra Unibertsitateekiko hitzarmena eta Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria (RIEV).

*El objeto de la subvención nominal por importe de 24.000 euros en 2014 es el de financiar diferentes gastos relacionados con actividades de Investigación de Eusko Ikaskuntza, como el Convenio con la Universidad de Ginebra y la Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV).*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduaren 2014/05/26ko aginduaren bidez eman zen 2014ko diru-laguntza izenduna.

*La subvención nominativa correspondiente a 2014 fue concedida por Orden de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura de 26/05/2014.*

d) Ikerbasque Fundazioari dirulaguntza

*d) Subvención a la Fundación Ikerbasque*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2007tik aurrera diruz laguntzen du 2006aren bukaeran, ikerketa eta ezagutza zientifikoa sustatzen eta garatzen laguntzeko, sortu zen Ikerbasque Fundazioa eta haren Patronatuko kidea da.

*El Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura viene subvencionando desde 2007 la actividad de la Fundación Ikerbasque, creada a finales de 2006 para contribuir al impulso, la promoción, y desarrollo de la investigación y del conocimiento científico, y de la que forma parte de su Patronato.*

2014an lortutako emaitzen arabera, Fundazioa ikertzaileen erakarmen handiko zentro bezala sendotu egin dela esan dezakegu: gaur egun Ikerbasquek 139 kontratupeko ikertzaile senior ditu, eta aurten Research Fellow-en bigarren deialdi arrakastatsua abiarazi du. Deialdiak etorkizuneko karrera zientifikodun ikertzaile gazteak biltzen ditu, nazioarteko esperientzia dutenak. Gazte hauek, zientifikoen harrobi bat osatuko dute eta zientziaren etorkizuna gidatu egingo dute Euskadin.

*Los resultados obtenidos en 2014 permiten afirmar que la Fundación se ha consolidado como polo de atracción de investigadores: actualmente, Ikerbasque tiene contratados a 139 investigadores sénior, y este año se ha lanzado con éxito la segunda convocatoria de Research Fellow, jóvenes investigadores que cuentan con una prometedora carrera científica y con experiencia internacional, y con los se espera crear una “cantera” de científicos que lideren el futuro de la ciencia en Euskadi.*

2014an, Ikerbasqueko ikertzaileek 750 artikulu baino gehiago argitaratu dituzte aldizkari indexatuetan, eta 20 milioi inguru lortuko dituzte ikerketa-proiektutarako, egindako inbertsioa bikoiztuz. Horrez gain, Ikerbasqueko ikertzaileek 11 ERC Grants lortu dituzte, Europa mailako ospe handienetakoak, ezaguera-mugan dauden asmo handiko ikerketa-proiektuak bultzatzen dituztenak.

*En 2014, los investigadores Ikerbasque han publicado más de 750 artículos en revistas indexadas y habrán conseguido una cifra cercana a 20 millones de euros para proyectos de investigación, lo que supone prácticamente duplicar la inversión realizada. Además, los investigadores Ikerbasque cuentan con 11 ERC Grants, las ayudas más prestigiosas a nivel europeo que favorecen proyectos de investigación ambiciosos en las fronteras del conocimiento.*

Ikerbasque Fundazioak honako zazpi erronka planteatzen ditu bere 2014-2017 Plan Estrategikoan, 2017ko urteari begira:

*En su Plan Estratégico 2014-2017, la Fundación Ikerbasque plantea los siguientes 7 retos en el horizonte 2017:*

Euskadik 7000 argitalpen zientifikoak ekoizten dira.

*Euskadi alcanza 7000 publicaciones científicas.*

Euskadik hiru posizio igotzen ditu estatuko zientzia-sistemaren ekoizpeneko rankinean.

*Euskadi asciende tres posiciones en el ranking estatal de productividad del sistema de ciencia.*

Euskadik hobetzen du bere argitalpen zientifikoen eragina.

*Mejora del impacto de las publicaciones científicas de Euskadi.*

Ikerbasqueko ikertzaileek 1000 artikulu argitaltzen dituzte 2017an, eta 65 puntu baino altuago den H indizea dute.

*Los investigadores Ikerbasque publican 1000 artículos en 2017 y alcanzan un índice H superior a 65.*

Ikerbasquek 90 milioi euroko itzulkina lortzen du 2014 eta 2017 urteen artean.

*Ikerbasque consigue un retorno de 90 millones de euros entre 2014 y 2017.*

BERC motako zentroek 1.000 artikulu argitaltzen dituzte, Euskadi osoko produkzioaren % 15a.

*Los centros BERC publican 1.000 artículos, 15% del total de Euskadi.*

2014an, Ikerbasque Fundazioak parte hartu du entitate-laguntzaile gisa, Basque Excellence Research Center-ei zuzendutako diru-laguntzen deialdiaren zenbait fasetan.

*En 2014, la Fundación Ikerbasque ha participado como Entidad Colaboradora en la gestión de distintas fases de la convocatoria de ayudas a los centros BERC (Basque Excellence Research Center).*

2014ko subentzio nominatiboa, 10.661.029 eurotakoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014/01/13ko agindu bidez ematen da.

*La subvención nominativa correspondiente a 2014, de un importe de 10.661.029 euros, se concede por Orden de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura de 13/01/2014.*

e) Innobasqueri diru-laguntza

*e) Subvención a Innobasque*

Innobasque Berriztapeneko Euskal Agentzia da. Estatutuetan jasota agertzen denez, Euskadi esparru guztietan eraldatzeko prozesua, eremu guztietan berritzailea izango den gizarte bat lortze aldera, sustatzea du Ikerbasquek helburu nagusia. Berriztapena gizarte alorreko gertakari hutsa denez, funtsezkoa da gizarte konprometitu bat izatea, berriztapenari lotutako baloreak sustatuko dituen kultur aldaketa haren jarduera eta portaerekin lagunduko duena.

*Innobasque es la Agencia Vasca de Innovación. Es objetivo fundamental de Innobasque, tal y como se recoge en sus Estatutos, promover el proceso de transformación de Euskadi hacia una sociedad innovadora en todos los ámbitos. Dado que la innovación es un fenómeno netamente social, es fundamental contar con una sociedad comprometida, que apoye con sus acciones y actitudes el necesario cambio cultural que potenciará los valores vinculados a la innovación.*

Testuinguru honetan, eta 2014. urtean jarduteko planaren barruan, Innobasquek FIRST LEGO LEAGUE EUSKADI (FLLE) antolatu du. Kirol itxurako formatua duen txapelketa bat da eta 9-16 urteko gazteak zientzia eta teknologiarekin ongi pasatzea nahi du, berriztapen eta sormenaren baloreak sustatzeko hezkuntza-helburuarekin. Horrela bokazio zientifiko eta teknologikoak, ingeniaritzak eta gaitasun sortzaile eta berritzaileak bultzatu dira. Horregatik, 2014/10/17ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren ebazpenaren bitartez, 8.000 euroko diru-laguntza eman zaie jarduera finantzatzeko.

*En este contexto, y dentro de su plan de actuación en el año 2014, Innobasque ha organizado la FIRST LEGO LEAGUE en el ámbito autonómico, como un torneo con formato de evento deportivo que introduce a los jóvenes de entre 9 y 16 años a divertirse y emocionarse con la ciencia y la tecnología con el compromiso educativo de fomentar los valores de la innovación y la creatividad fomentando así las vocaciones científicas, tecnológicas, ingenierías, capacidades creativas e innovadoras. Por Orden de 17/10/2014 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura se ha concedido 8.000 euros para financiar esta actividad.*

f) Diru-laguntza Jakiunderi

*f) Subvención a Jakiunde*

Interes publikoko arrazoiengatik justifikatzen da Jakiunderen sostengu ekonomikoari ematen zaion laguntza. Izan ere, arrazoi horietan oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak laguntza eman eta sustatzeko prozesua eta, horretarako, 2014/03/1eko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren ebazpenaren bitartez, 40.000 euroko dirulaguntza eman da.

*La contribución al sostenimiento económico de Jakiunde se encuentra justificada por razones de interés público que fundamentan el apoyo y fomento de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma, para lo cual se ha subvencionado con 40.000 euros por Orden de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura de 1/03/2014.*

Erakunde horrek sustatzen duen proiektu generikoaren ezaugarrietan oinarritzen da dirulaguntza hau; izan ere, nazioarte mailan ospea izango duen instituzio bat izan nahi du Jakiundek, ezagutzaren eta berriztapenaren gizartea sustatzen du, gure hezkuntza-, kultur eta ikerketa-sistemen egoera ebaluatzen du, Zientzien, Arten eta Letren eremuko politikak diseinatzen

*Se fundamenta esta acción por las propias características del proyecto genérico que impulsa dicha entidad, que aspira a ser una institución de prestigio internacional que impulse la sociedad del conocimiento y la innovación evaluando el estado de nuestros sistemas educativos, culturales y de investigación, liderando iniciativas que ayuden a diseñar las políticas*

laguntzeko ekimenak lideratzen ditu eta, azken batean, esparru horretan erreferente bat da gainontzeko eragileentzat eta gizarte osoarentzat. Bigarrenik, Jakiundearen beraren izaerarengatik justifikatzen dira dirulaguntzak; izan ere, diziplina desberdinetan egindako lanarengatik publikoki ezagunak diren pertsonek osatzen dute eta guztien artean lan egitearen aldeko apustua egiten dute, etorkizuneko erronkei erantzuna emateko gizarteari haien ikuspegi kualifikatua eskaintzeko.

*en el ámbito de las Ciencias, las Artes y las Letras y, en definitiva, siendo un referente en este ámbito para el resto de agentes y para el conjunto de la sociedad. En segundo lugar, por el carácter de la propia Jakiunde, constituida por significativas personalidades reconocidas públicamente por su labor en diferentes disciplinas que apuestan por trabajar en común para ofrecer a la sociedad su cualificada percepción ante los retos futuros.*

g) EHUren eta ILCLIren arteko lankidetza-hitzarmena.

*g) Convenio de colaboración UPV/EHU – ILCLI*

2010/04/27ko Gobernu-kontseiluan baimendu zen lankidetza-hitzarmen berri bat izenpetzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta EHUko Logika, Ezagutza, Hizkuntza eta Informazio Institutuaren artean, Ikerketarako Euskal Espaziorako nabarmenak diren zientzia formalen, giza zientzien eta gizarte-zientzien arlo espezifikoetan ikerketa gauzatzeko.

*El 27/04/2010 se autorizó en Consejo de Gobierno la firma de un nuevo Convenio de Colaboración entre el Dpto. Educación, Universidades e Investigación y el Instituto de Lógica, Cognición, Lenguaje e Información (ILCLI) de la UPV/EHU para el desarrollo de la investigación en áreas específicas de ciencias formales, humanas y sociales relevantes para el Espacio Vasco de Investigación.*

Hitzarmena 2014an luzatu da, 16.000 euroko zenbateko batekin. Kopuru hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014/06/20ko aginduaren bidez eman da.

*El Convenio ha sido prorrogado en 2014, con una dotación de 16.000 euros. Dicha cantidad ha sido concedida por Orden de 20/06/2014, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura.*

h) Dirulaguntza bat ematea Kriminologiaren Euskal Institutuari, “Antonio Beristain “ biktimei buruzko Ikerketa-Saria finantzatzeko.

*Subvención al Instituto Vasco de Criminología para financiar el Premio de investigación victimológica Antonio Beristain.*

EHUko IVAC/KREI-k “Antonio Beristain “ Biktima-Ikerketa Saria sortu du, diziplina horri lotutako ezagutzak ulertu eta hobetzeko lagungarri izango den lan zientifiko onena saritzeko eta, halaber, Antonio Beristainen, Zigor Zuzenbideko katedradun eta Kriminologiaren Euskal Institutuaren fundatzailearen, lana ohoratzeko, Biktimologiari egin dion aparteko ekarpenarengatik.

*El IVAC/KREI de la UPV/EHU, ha creado el Premio de investigación victimológica Antonio Beristain destinado a premiar el mejor trabajo científico que contribuya a comprender y mejorar los conocimientos relacionados con esta disciplina, a la vez que trata de honrar la labor de Antonio Beristain, Catedrático de Derecho Penal y Fundador del Instituto Vasco de Criminología, por su contribución excepcional a la Victimología.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sariaren finantziazioan parte hartzen du, 2014/05/7ko ebazpenaren bitartez emandako 2.400 euroko dirulaguntza batekin.

*El Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura colabora en la financiación del premio mediante una subvención de 2.400 euros, concedida por Orden de 7/05/2014.*

i) EHUko Euskara Institutuari dirulaguntza.

*i) Subvención al Instituto de Euskera de la UPV/EHU*

Hauek dira institutu honen helburuak: ikerketa lexikografikoa ezaguera-esparru desberdinetan, eta, euskeraz eta euskararen didaktikari buruzko ikerketa, hala nola Unibertsitateetan eta bestelako irakasmailetan egindako irakas-saiakeretan lortutako emaitzen ebaluaketa eta jarraipena. Unibertsitateko testuen eta irakasmaterialaren prestaketa, eta aholku teknikoa ematea bere eskumeneko esparruetan, hala nola korpus linguistikoei loturiko materialak, eta sarean kokatzen diren hiztegiak eta gramatikak sortzea.

*Las finalidades de este Instituto son: la investigación lexicográfica en las distintas áreas del conocimiento y la investigación sobre didáctica de y en Euskara, así como el seguimiento y evaluación de los resultados obtenidos en las experiencias docentes realizadas en la Universidad y en otros niveles educativos. La preparación de textos y material docente universitario, y la prestación de asesoramiento técnico en el ámbito de su competencia, así como la elaboración de materiales relacionados con corpus lingüísticos, diccionarios y gramáticas en red, son también objeto de sus fines.*

Emandako zenbatekoak hauek dira: 70.000 euro 2011ko ekitaldirako, 80.000 euro 2012ko ekitaldirako, 90.000 euro 2013ko ekitaldirako eta 100.000 euro 2014ko ekitaldirako.

*Los importes concedidos son: 70.000 euros para el ejercicio 2011, 80.000 euros para el ejercicio 2012, 90.000 euros para el ejercicio 2013 y 100.000 euros para el ejercicio 2014.*

2014an urte horri dagokion diru-kopurua ordaindu egin da.

*En 2014 se ha procedido al pago de la cantidad correspondiente a esa anualidad.*